

ASTIGARRAGA 2016

35. aldizkaria, 2016ko uztailaren 8a



Urumea,
sagardoaren ibaia

AURKIBIDEA

HISTORIA



Bertsolarien ahoz	8
Urumea ibaia antzinako bizitza iturria	16
Sagardoa Urumean barrena jaisten zan	20
Santioen XIII. mendeko irudia	32
Txurriategiri azken agurra	42

BIOGRAFIAK



El pregonero	22
--------------	----

HERRIKOIAK



Mikel Goenaga apaiza joan zaigu	3
Juanita Aldanondo baserritar emakumea	12
Herri bizitzaz	48

ELKARTEAK




Goldea, 25 urte kale eta baserria	4
700 kizki-lagun bildu baietz!	29
Herria eta kristau elkarteak parrokian	37
Xagu-Xar: Handiak egin gara zuei esker	38
GURE ESKU egongo da!	45
Gurasos ekimena	50

NATURA



Animalia espezie mehatxatuak	14
Atez atekoa 4, bosgarren edukiontzia 6	24
TTIP edo baserriaren aurkako erasoak	34

KULTURA



JAIK 2016	25
Ekaitza eta barealdia	30
Ni euskalduna, ni astiartarra	40
Ehun eta ehun berrehun...! mahai-jolasa	46



Argitaratzailea: **ASTIGAR ELKARTEA**

Aldizkariaren koordinatze eta erredakzio lantaldea

ANTTON Arka, KIZKITZA Galartza, ROXARITO Zabalegi eta MIEL JOXE Astarbe

Kolaboratzaileak

Isabel Almandoz, Ramon Santxez, Lourdes Odriozola, Andoni Arzallus, Lorena Uriarte, Urkiri Salaberria, Gaizka Irigoien, Juantxo Zuaznabar, Arantxa Arzamendi, Urtzi Leonet, Garbiñe San Miguel, Xabier Urdangarin, Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe

Maketazio lanak:

ANTZA eta Antton Arka

Babesle eta Laguntzaileak

TXIMELA, KUTXABANK eta ASTIGARRAGAKO UDALA

Lege-gordailua: SS-0058/04

Inprimaketa: Antza komunikazio grafikoa

Azaleko argazkia: Urumea, sagardoaren ibaia, Gabriel Lizeaga

MIKEL GOENAGA TELLETXEA

apaiza joan zaigu

Gure arteko bizitza-aldia amaitu du sasoi onean zegoen momentuan eta utzitako hutsunea bere oroitzapen goxo eta itxaropenek beteko dute. Zerbitzua izan du oinarri gizaki eta kristau bidean, gizartearentzat existitzen ez direnak eta berak esaten zuen bezala "molestoak" gertatzen zaizkigunei laguntzeko beti prest. Beraien laguntzaile eta eredu nekaezina, egoera eta momentu guztietan.



Antiguon jaio eta Andoainen, Sorabilan eta Arraguan, izan eta gero. 2002. urtean etorri zen Mikel Goenaga Telletxea gurera eta hemen eman ditu azken hamalau urteak.

Bere apaiz lanetan, gizarteak marjinez dituenak oso gogoan izan ditu beti. Arazoak di-

Se ha hablado y escrito mucho sobre su trabajo de servicio, comprometido con los que "no existen" para la sociedad y nos resultan molestos, con los que más sufren y defendiendo siempre a los más marginados. Un cura que siendo muy consciente de ello, resultaba incómodo a muchos y a pocos indiferente. Su casa y su generosidad han estado siempre abiertas de par en par.

tuztenekin egin beharreko lana ikusi du eta garrantzi berezia eman dio laguntza horri. Bere bizitzako erabakietan ere eragin handia izan dutela esan ohi zuen, espiritualitate baten barruan ikusiz hauekiko atentzioa, sufritzen ari direnengana gerturatuz.

Kristau elkartean, familia harremanak bultzatu zituen. Gure arteko harremanak sendotuz gero, kristau testigantza hobea egiteko, modu indibidualean bizi gabe. Sinesmena bizitzara eramaten saiatu zen eta parrokia inguruan gabiltzan pertsonen taldea zabaltzen eta indartzen.

Mikelen bidez errealitate ezberdinak ezagutu ditugu:

- Espetxeakoak kontuan izan ditu beti: bera zen kartzela eta askatasunaren arteko zurbia eta ez zuen arazorik bere etxean hartu eta gizarteratzeko.
- Bere etxea kultur aniztasunez beteriko txokoa zen, errumaniarrek pisu handia edukiz.
- Bere etxeko paretak elikagaiez eta arropaz gainezka ikusi ditugu beti, hau zen bere dekorazioa eta bere etxea beti zabalik zegoen, oinarriko behar guztiak asetzeko, ordutegirik gabe.

Solidaritate baloreak nabarmendu izan ditu, kontzientziadun elkarte bat bultzatuz eta herria gizatiarragoa izaten lagunduz, formak ez, baizik eta edukiak zaintzen saiatuz. Berak zabalduko espiritua, benetan bizi izan zuena, ahaztu ezina gertatuko zaigu. Har ditzala bakea eta merezitako atseden.

GOLDEA,

25 urte kalea eta baserria lotzen duen ildoak egiten



SOROAN EZER EREIN BAINO LEHENAGO...


Soroan ezer erein baino lehenago, goldeak lurra ildotan ireki behar du, lurra irauli eta emankorragoa izan dadin. GOLDEA Herri Kirol Batzordea ere bideak irekitzen aritu da 25 urte hauetan, baserria kalera hurbilduz, kaletarrok baserria ezagutu eta gure ondarearen parte eder honezaz jabetu gaitezten.

Aurten bete dira 25 urte GOLDEAK, lehendabiziko aldiz San Isidro eguneko festak antolatatu zituenetik. Hauxe izan zen GOLDEAREN mende laurdeneko ibilbidearen lehen urratsa eta sortzeko arrazoia. Orduko urrats hura zergatik eman zuten, eta gerora egin dituzten ekintzez eta lortu nahi izan dutenaz hitz egingera elkartu gara batzordeko sei kiderekin. Lau kide sortzaileak dira, Gabriel Lizeaga, Joxe Mari Latasa, Joxe Mari Lizeaga eta Antton Arka. Joxe Urretabizkaia eta Inaxio Bera-sarte gerora gehitu zitzaizkien. Elkarriketa erraz irten da, sagardoa upeletik bezala.

RAMON Santxez

Astigarraga Donostiako auzo zenean, dio Gabriel Lizeagak, San Isidro eguna lau urtez behin ospatzen genuen. Txandaka antolatzen zuen udalak Altzan, Igeldon, Zubietan eta Astigarragan, eta guk urtero antolatu nahi genuen, guretzat ikurra baita eta garrantzizkoa baserritarrek omendu eta egun bat haiei eskaintzea. Joxe Urretabizkaia gainera gogoratu du Astigarragako Harri Haundiak 12 urte geldirik zeramatzala, eta hori mugitu beharra zegoela nola edo hala. Lehen Matxak antolatzen zituen herri kirolak Astigarragan, urtero, berak ezagutzen zuen jendea federazioan eta berak ekartzen zituen aizkolariak, idi pareak ... Inaxio Berasartek gogoan du nola ikusi zituen Astigarragako plazan punta-puntako herri kirolariak, Kortabarria anaiak, Polipaso, Latasa ... baina Matxa hil zenean, hura gelditu egin zen. Eta hala, San Isidro eguna berpiztu nahirik eta Harri Haundia mugitzeko erronkaz hasi zen lanean GOLDEA.

Guk umiltasunez hartu genuen lana, dio Antton Arkak, eta motibazio handiz, galdutako ohi-turak berreskuratu nahi genituelako, galdutako herri kirolak, hori taldea martxan jartzeko garran-



Jose Loiarte "MATXA", 1978ko Santio jaietan.

tzizkoa izan zen. Baina ez ditugu kirolak berreskuratu bakarrik, berritzaileak izan gara eta herria inplikatzeko lortu dugu, adin eta sektore guztietakoak. Joxe Mari Latasak ez du nahi emakumeek beti izan duten lekua aipatu gabe geratzerik, esaterako, urtero frogak bikoteka egin dituzte Santa Ana egunez, eta emakumeentzako probak egin izan dituzte, iaz esaterako, Herriko Emakume trontzalarien lehen txapelketa, eta giza proban herriko neskek ere parte hartu zuten Harri Haundia mugitzen.

Izaera berritzaileari heldu dio berriro Gabrielek. Guk egiten ditugun ekintzak ez ditu beste talderik egiten, sortzaileak izan gara baserriko lanak plazara eramanez eta erakutsiz, eta zenbaitzutan beste herriek hartu egin dituzte guk asmatu ditugun ikuskizunak. Guretzat ohorea da. Pasai Donibanen esaterako, orain bi urte, guk egin genuen belargintza proba egin zuten. Kizkiarena da beste adibide garbia, sagar uzta egunerako kizki bilketa antolatu genuen 2007an. Lehendabizi Astigarragan egin genuen, eta gero Oiartzunen, Goizuetan, Hernanin, Donostian, Usurbilen eta Errenterian eta aurten Astigarragan itxiko dugu buelta, zazpi herriak eta 700 kizki lagun bilduz. Hori nahiko genuke. Oso lan politak erakutsi ditugu plazan, dio Joxe Mari Lizeagak, baratzekoak, esnea nola jezten den erakutsi dugu, 10.000 litroko upel bat egin genuen oso-osorik 2009an Astigarragako plazan, belar lanak, (belarra jaso, sortak egin, meta, ganbarara igo), basogintzakoak, ederra hori!, dio Inaxio Berasartek, bost metro luzeko enborra jarri genuen plazan, trontzaz lau pusketan moztu genuen, lau pusketa horiek aizkoraz pitzatu, bildu eta leran garraiatu, basogintzan egiten zena.



GOLDEAko kideak, 2016ko San Isidro egunean: Jose M^a Lizeaga, Jose M^a Latasa, Joxe Urretabizkaia, Inaxio Berasarte, Antton Arka eta Gabriel Lizeaga.

Baserritarren omeneko San Isidro eguna urtero antolatzeaz gain, Santa Ana Eguneke ekitaldiak ere GOLDEA antolatzen ditu, ZIPOTZA elkartearekin batera. Bi osagai ditu nagusi Santa Ana egunak, herri kirolak eta sagardoa, sagardoaren kultura zabaldu eta ezagutaraztea baita, GOLDEAren

→

**Baserriak behar ditugu, eta
baserriek behar gaituzte.**

hirugarren xedea, baserria eta herri kirolekin batera. Antton Arkak dio Santa Ana eguna izan dela beraiantzat esperimentatzeko eguna, jendea prest egoten baita, zain, Santa Ana egunerako zer antolatuko ote dugun. Egun horretan antolatu ditugu, esaterako, Astigarragako gazteen eta Urnietakoen arteko probak, Hernanikoekin eta Ezpeletakoekin, sega pikatze eta artaburu aletzeak, era guztietako lehiaketak ... eta Harri Haundia, azpimarratu du Joxe Urretabizkaiak, sortu ginenetik urtero urtero mugitu izan dugulako Astigarragako Harri Haundia, 3.298 kilo dituen, nahiz federazioan 3.500 kilokotzat duten. Hemen ere berritzaileak izan gara, lau idiko uztarrarian mugitu genuen Harri Haundia. 1999an uztarri berria egin eta 2000n mugitu genuen Matxa omenduz, lau zaldi lerroan jarrita ere bai (Inaxio Berasartek gogoan duenez, mingain urdinaren gaitzarengatik idirik plazara atera ezin izan zutenean, 2001ean), 1.500 eta 1.700 kiloko harri bana, bat bestearen atzetik jarrita hiru idi uztarrarian jarrita mugitu genituen. Baina handienetakoa Iñigo Aurrekoetxearen marka da, iaz hautsi zuen 65 urtetan hautsi gabe egon den Domingo Ubarretxenaren marka, 60 plaza egin zituen Aurrekoetxeak 50 minututan. 1.700 kiloko harriari Iñaki Olideneke egin zion 2011n markarik onena, 64 plaza ordu erdian.

GOLDEArentzat beste ekintza inportantea giza probak izan direla azpimarratu du Antton Arkak. Desanexioaren 25. urteurrenean 25 gazterekin bi mila kiloko harria mugitu genuen, 39 plaza egin zituzten. Gogoan du ordea oihartzun handiagoa izan zuela herriko 22 gaztek Harri Haundia mugitu zutenean. Joxe Urretabizkaiak gogoan du, 20 minututan 18 plaza egin zituztela, inork egin ez duena eta bere ustez urteak beharko dira inork hobetzeko. Urritik maiatza bitarte, dio Joxe Mari Lata-sak, igandero-igandero 30 gazterekin joaten ginen arratsaldeko lauretarako entrenamenduak egitera.

Ez dugu berreskuratu bakarrik egin, berritzaileak izan gara.

Gazteek badute afizioa, dio Antton Arkak, festetarako elementu erakargarria sortzen baduzu joango zaizkizu. Aurten 18 eta 22 urte bitarteko 16 gazte ditugu, eta lekukoa eman nahi diegu, Herri Kirolen eskola sortu ...



GOLDEAren erdimuinean baserria egonik, udalak baserria ondo zaindu al duen galdetu diet, eta Gabriel Lizeagak erantzun dit ez duela kontuan hartu, bere ustez orain hasi dela konturatzen zer galdu duen, zer altxor eta zer ondare den baserria arlo denetan, kultura, hizkuntza, ohitura edota mendi zaintzan. Baserriak berritzeko baimenik ez duela ematen diote kexu mahaiko baserritarrek, badakite ederki zertaz ari diren hizketan. Baserria bizirik eta indartsu egotea GOLDEArentzat zutabe nagusia dela dio Antton Arkak. Baserritarrak ez du askorik jaso, dio, nahiz eskuzabala den. Gogoan du aldizkari hau egiteko, etxez etxe ibiltzen zirela banatzen, trukean borondatea dirutan jasoz. Astigarragan baserriak, kaleko etxeak baino askoz gutxiago izanik, diru guztiaren erdia baserrietan jasotzen zutela.

Ekintza bat plazaratzen dugunean baserria goratzen ari gara.



25 urte hauetan, GOLDEAK 250 ekintza baino gehiago antolatu ditu

25 urte hauetan, GOLDEAK 250 ekintza baino gehiago antolatu ditu, beti baserria, sargardoa eta herri kirolak ardatz hartuta. Baserriari buruzko ikerketa sozioekonomikoa ere egin zuen bi mila eta hamalauan. Aurten liburua argitaratuko dute, antolatu dituzten ekintzak, eta herri kirolean Astigarragako plazan egindako marka guztiak jasoz. Ez da ibilbide erraza izan, esan dute denek, udaletxearen eta aldundiaren aurrean herriko taldeek asko justifikatu behar baitute laguntza txikia jasotzeko. Banketxeekin ere atsekabe handia hartu dute azkeneko urteetan, ezin izan dute eta iragarki bakar bat ere jartzea lortu, ez La Caixaren, ez Kutxabanken ez eta Laboral Kutxaren aldetik. Enpresa txikiek bakarrik babesten dituzte. Baina gustura daude, herritarrek oso harrera ona egin diotelako elkarteari, antolatu dituen ekintzek poza piztu dutelako herrian, eta herritik kanpo ere eredutzat hartu izan dutelako beraien lana. ■

MODERNIZAZIO PROZESUA ETA IDENTITATE BIDEAK GIPUZKOA (1830-1936)

Abiapuntua: galderak

Nola bizi izan zituzten gure aiton-amonek, birraiton eta birramonek Gipuzkoan XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran gertatzen ari ziren aldaketak? Zenbaterainoko eragina izan zuten aldaketa hauek beren bizitzetan, eta batez ere, beren burua ulertzeko moduan -identitate kolektiboan- sakoneko iraultzarik ekarri al zuten?

Hauexek ziren doktorego tesia egiterako orduan buruan genituen galderak. "Nor gara gu?" galderari nola erantzuten zieten? Astigarragatar, gipuzkoar, euskaldun, espainiar? Zein ote erantzuna? Eta garai hartan ematen ari ziren aldaketek erantzuna aldatzera behartu al zituen?



Txirrita (1860-1936).
Iturria: ZAVALA, A.: Jose Manuel Lujanbio Retegi (1860-1936). Bizitza ta bertsoak. Tolosa: Auspoa, 1992. 7. or.

Doktorego tesia: erantzunak pentsatzeko modua

Galdera hauei erantzutea izan zen azken urteotan egin dugun doktorego tesiaren helburua. Doktorego tesi bat zer da, azken finean? Gai baten inguruan egiten den ikerketa edo inbestigazioa. Galderak, erantzun posibleak -hipotesia-, lantzeko materiala izatea -iturriak-, erantzun horiek frogatzeko bide bat egitea -metodoa-, eta ondorio batzuetara iristea. Horixe.

Zer espero genuen aurkitzea?

Gure lana hasi baino lehen, bagenituen susmo batzuk. Batetik, bagenekien Gipuzkoan XIX. mendean eta XX. mendean eman zen modernizazio prozesua ez zela bortitza izan. Modernizazioaz ari garenean, aldaketa multzo batez hizketan ari



Pello Errota (1840-1919). Iturria: ZAVALA, A.: Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919). Tolosa: Auspoa, 1992. 7. or. Eibarko Indalezio Ojangurenen argazkia, 1916an ateratakoa.

gara: industrializazioa, hiritartzea, alfabetizazioa, demografian aldaketak, gizonen eta emakumearen paperaren moldaketa, ideologia politikoen sorrera eta indartzea, sekularizazioa, “euska” identitatearen oinarriak jartzea, etab. Aldaketa horiek guztiak ez ziren Gipuzkoan Bilbo inguruan bezain indartsuak izan aztergai genuen garaian. Bagenekien baita ere Gipuzkoako herri eta bazter guztietan ez zirela aldaketa hauek ez indar bereekin, ez garai berean eman. Espazioan eta denboran, eszenatoki ezberdinak genituen, beraz, Gipuzkoan.

Honek guztiak, jakina, eragina izango zuen herritarrek beren buruaz zuten ikuspegia aldatzeko moduan. Hala ere, identitate kolektibo eta politikoen gaiak gainerako aldaketen artean indar berezia izatea espero genuen.

Iturriak: bertsoen garrantzia Historia idazteko

Hasieran esan dugu, guk gure aitona-amona, birraitona eta birramonek eta haien garaiko gizon-emakumeek aldaketak nola bizi izan zituzten jakin nahi genuela. Hau da, herri xehearen ikuspegitik aztertu nahi genituen mudantza haiek. Zer esan nahi dugu herri xehea diogunean? Herritarren gehiengoa esan nahi dugu, hau da, jabe ez zirenak, pobre zirenak, alfabetatze maila txikia zutenak. Jakina, ofizio desberdinak izango zituzten, pentsaera politiko desberdinak. Nola, ordea, haien iritzia jaso, idatzita ezer utzi ez bazuten?

Bagenuen aurrentipen bat, gainera. Aspaldian bueltak ematen ari ginen gai bat zen: bertsoak zergatik ez erabili iturri historiko gisa? Bertsoen azterketaren bitartez iristerik izango ote genuen garai hartako herri xeheak pentsatzen eta bizi zuena ulertzera? Saiakera egin nahi genuen. Horretarako, XIX. mendeko Gipuzkoan fenomeno berezia genuen gainera: bertso-papereana. Garai hartako Gipuzkoan bertsoak idatziz jarri eta inprentan kopiak egiten hasi ziren. Bertso hauek jendea biltzen zen tokietan jartzen zituzten salgai eta jendeak erosi egiten zituen. Bertso hauek guganaino iritsi dira gainera, neurri handi batean, haiek biltzeko Antonio Zavalak egin zuen ahaleginari esker. Auspoa bilduman argitaratu zituen hark 300 liburutik gora. Haietako askotan bertso zaharrak biltzen zituen. Hortxe genituen iturriak eskura (gaur egun interneten ere kontsulta daitezke Auspoako lanak www.euskaltzaindia.eus web orrialdean, eta jatorrizko bertso-papereak www.kmliburutegia.net web orriko katalogoan).



Bilintx (1831-1876).

Iturria: ZAVALA, A.: *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*.

Oiartzun: Sendoa, 1993. 48. or. Lopez Alenen marrazkia.




Xepelar (1835-1869). Iturria: Antonio Valverde, “Ayalde”k 1969an egindako kuadroa. PEREZ GAZTELU, Elixabete: Juan Frantzisko Petriarena Xepelar 1835-1869. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzkao Argitalpen Zerbitzua, 2010. 1. or.

Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Pedro Mari Otaño, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegui

Bertsoak bai, baina zein bertsolariarenak? Sei bertsolari aukeratu genituen guk. Guztiak gipuzkoarrak, guztiak XIX. mendean jaioak, guztiak gizonetakoak –emakumeen ikuspegia geratu zaigu hankamotz, baina garai hartako emakume bertsolariaren bertsoak apenas jaso den-. Euren artean, ordea, bazituzten desberdintasunak ere: ofizio desberdinak, pentsaera politiko ezberdinak, alfabetatze maila desberdinak. Ikus dezagun.

- Xenpelar (Errenteria, 1835-1869): Errenteriako Fabrika Handiko langilea, erlijio katoliko zorrotzaren jarraitzaile, foruak oinarri harturik hiru probintzien elkarlanaren aldekoa.
- Bilintx (Donostia, 1831-1876): arotza, antzokiko mantinentuko langilea, erromantiko eta liberala.
- Pello Errota (Asteasu, 1840-1919): errotaria, familia tronkaleko seme eta aita, gure lanean landa eremuaren ordezkari.
- Pedro Mari Otaño (Zizurkil, 1857-Argentina, 1910): landa eremuan jaio izanagatik, Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariaren baitan bertso idazle gisa hazia, kultoa, eta emigrantea.



Lopetegui (1875-1942). Iturria: ELOSEGI, Joxan (ed.): Joxe Mari Lopetegui. Errepublikanoen bertsolaria (Irun, 1875-Arrueta, 1942). Soraluze: Paper Hotsak, 2004. 5. or.

- Txirrita (Hernani, 1860-Altza, 1936): hargina, mutilzahar parrandazalea, bapatean eta idatziz bertso sortzaile nekaezina.
- Joxe Mari Lopetegui (Irun, 1875-Arrueta, 1942): kontratista, Errepublikan sinetsi zuen gizon zuzena, bertsoak Errepublikaren aldekoak irabazteko erabili zituen, erbestean hila.

Bertsoen azterketa: eguneroko bizitzaren garrantzia

Aipatutako bertsolariaren bertsoak aztertu genituen, Auspoan argitaratuak gehienak. Joxe Mari Lopetegiren bertsoen kasuan, berriz, Joxan Elosegik liburua argitaratu zuen Paper Hotsak argitaletxean. Bertso horien azterketan ez zitzaigun interesatzen hauen alderdi literarioa, edo hizkuntzari zegokiona. Guk aztertutakoa, batez ere, bertsoen edukia izan da: zein gai nagusi ageri ziren eta nola tratatuak. Hau da, identitatearen gaia, “nor gara gu?” galderari erantzuna ematen al zioten?



Otaño (1857-1910). Iturria: ZAVALA, A.: Pedro Maria Otaño eta bere ingurua. II. alea. Oartzun: Sendoa, 1993. 7. or.

Bertsoak aztertzerakoan laster ikusi genuen identitatearen gaia ez zutela bertsolari guztiek tratatzen, eta lantzen zutenak ere, ez zutela ez indar berarekin, ez ikuspegi berdinetik egiten. Bestalde, identitatearen inguruko aldaketez gain, beste hainbat aldaketez ere hitz egiten zuten bertsolariak: ekonomian, gizartean, edota erlijioaren bizipenean ematen ziren aldaketez. Eta gauza bat garbi ikusi genuen: batez ere, eguneroko bizitzaz eta eguneroko bizitza horretan bizi zituzten aldaketez mintzo zirela bertsolariak.

Ondorioak: bertsolariak eta trantsizioan zegoen identitatea

Txirritaren bertso batzuek ongi adierazten dute gure lanaren ondorio nagusia (ZAVALA, Antonio: Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi (1860-1936). Bizitza eta bertsoak. Tolosa: Auspoa, 1992. 408. or.). Bertso hauetan Txirritak menditik zuhaitz handi bat ("puska") jaitsi eta Hondarribira eramateko zein ahalegin egiten dituzten kontatuko digu:

"Martín etorri zaigu / biyaramunian, / bere motor da karro / koraje onian, / puska automobilian / sartu degunian, / esanaz: <Eramango / det bi egunian>".

(...)

Eutek esan zion: / <Zu, Martín maitia, / al dan polikiyena / abiya zaitia; / itzaiak ere ala / etorriyak tia, / onekin kostako da / aguro juatia>.

(...)

"Abiyatu zanian / ura aren seta, / mendiko bizi-moduz / etzegon aseta; / zernai egingo zuen / izan balu beta, / aidian eraman du / Xerrai'en meta.

Ondarrabiya'n puska / ikaragarriya, / Anjelen tallarrian / an dago jarriya; / itzaiak egin dute / naiko pikardiya, / ardotan kastatua / omen da erdiya".

(...)

"Puska ezin altxarik / giñadela ari, / zeñek lagun egiña / izandu zan guri; / kate polearekin / zitzaigun etorri, / eskerrak Karriko / errotariyari".

Gipuzkoan modernizazioa pixkanakakoa izan zen, ez zuen aldaketen aurreko mundua desegin edo desagerrarazi. Nolabait esateko, osagarri gertatu ziren mundu zaharra eta berria, Txirritaren bertso hauetan gurdia eta automobila osagarri diren bezala, eta beharrezko diren bezala, zuhaitz menditik jaitsi eta Hondarribira eramateko. Tartean ageri zaigun errotaria, kate-polea dakarrena, bi munduak harremanetan jartzen dituen da. Eta zenbait bertsolari XIX eta XX. mende hasieran Gipuzkoan ematen ari ziren aldaketen aurrean "polea" horren funtzioa bete balute? Hau da, bertsoen bitartez -ahozko forma tradizionalan-, ideia berriak gizartera zabaldu izan balituzte? Horixe litza ke, gure ustez, bertsolariaren funtzioetako bat garai hartan.

Beste ondorio nagusi bat, bertsolarien artean bizi zituzten aldaketen artean, identitateari dagokion gaiak pisua bazuela, baina beste gai batzuk ere ageri direla da. Eta horretaz gainera, identitate kolektiboari dagokionez, bertsolari bakoitzaren bizi esperientziak, eta aldaketak zenbateko indarrez eta sakontasunez bizi izan zituzten kontuan izateak, hauek identitateaz zer eta nola kantatzen duten esplikatzeko dutela da.

Horrela, gure ustez, Pedro Mari Otaño, Xenpelar, eta Joxe Mari Lopetegik izango dira gai honi bereziki helduko diotenak: lehenengoak, abertzaletasunaren ikuspegitik, bigarrenak foruzaletasun berritu bat aldarrikatuz, eta hirugarrenak, berriz, errepublikaren ikuspegitik. Txirritak ere landuko du gai hau, baina foruzaletasun tradizionala eta abertzaletasunaren elementuak nahastuz, tradizioetik egoera berria ulertu nahian bezala. Bilintx eta Pello Errotak ez dute gai hau gehiegi tratatuko beren bertsoetan.

Otaño, Xenpelar eta Lopetegik aldaketak indar handiz eta beren hezur-haragitan bizi izanak behartu egin zituen identitatearen gaiak pentsatu eta bertsoak jartzera. Hala ere, identitate proposamen berriak egiten dituztenean, guztiek egingo diote tokia lehenagokoari: euskara, historia, paisaia, foruak, eta gisako elementuak aipatuko dituzte, zaharraren eta berriaren arteko lotura azpimarratuz. ■

LUZIA ALBERRO

“BASERRITAR EMAKUMEOK EZ DUGU ERRAZA IZAN ETA ORAINGOEK ERE KALEKOEK BAINO ZAILAGO”

Juanita Aldanondo Garmendia Lizardi baserrian jaio zen 1930ean. Barkaiztegi sagardotegiko seme batekin ezkondu baina senarra etorri zen Lizardira. Urte asko egin ditu Bretxako merkatuan baserriko produktuak saltzen. Gaur egun ere utziz gero agintzea gustuko omen du.

Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?

Herriko neskak mojetara joaten ginen, gaur egun kultur etxea dagoen eraikinean eskola genuen. 18 urte arte ikasi nuen, azken bostak “partikular”.

Eskolara joan aurretik baserriko lanak egin behar genituen, animaliei jana eman, ura errekatik atera eta etxerako ogia erosi.

Garai haietan ez zegoen autorik eta zaldi karrota ibiltzen ginen batetik bestera.

Eta bizitza osoan baserrian egin duzu lan?

Bai. Nere zeregina urtetan Bretxara joan eta baserriko barazkiak, frutak eta esnea saltzea izan da. Ondoren loreak ere bai.

Goizeko bost t´erdietan jaikitzen nintzen eta bezperatik dena prest zegoen zaldi karroa kargatu eta autobusaren paradara joateko.

Garai hartan Donostiara joaten zen autobusa prestaturik zegoen, apal bereziak baserriarrotarrak eta arpilarak jartzeko... Lehena etortzen zenak apalik erosoena hartzen zituen...

Donostiara iritsi eta laguntzaileak postua prestatzen zidan bitartean nik esnea partitzen nuen Donostiako hainbat etxetan. Dena den, zazpi t´erdiak aldera zabaltzen genuen postua.

Eta oporrik ba al zen?

Oporrak!!! Hasiara batean igandetan ere postuak jartzen genituen baserriarrek. Urteak igaro ahala

egun bat jai egin behar genuela ikusi genuen, larunbatean egiten zuela jendeak erosketa nagusia eta horrelaxe hasi ginen igandeak libratzen.

Nere lehen oporrak seme zaharrena ezkondu eta gero hartu nituen.

Lizardik aurrera egin du baina zure inguruan ikusiko zenituen hainbat baserri hutsik?

Argi dago aurrera egin duten baserriek diru pixka bat sartuta izan dela. Negutegiak jarri, makinaria erosi... Lizardin seme-alabak hasi ziren lore kontuekin eta hortxe daude.

Beste hainbat baserrik lehengo legean jarraitu zuten eta horiek etorkizun beltza dute.



Eta zerori emakume baserritarra izanik, nola ikusten duzu emakumearen egoera baserrian?

Kaleko emakumearena baino zailago... Kaletarrak errazago bizi dira. Hemen lanak ez dira amaitzen eta etxetik kanpo egiten baduzu, etxera itzultzean baserriko lanetan hasi behar duzu.

Urteak egin ditut oso garaiz jaikitzen, goiz guztia Bretxan egin eta siesta txiki baten ondoren arratsalde guztia baratzean lanean, hurrengo eguneko barazkiak bildu eta prestatzen... Eskerrak garai hartan lau belaunaldi bizi ginenik Lizardin eta ama eta amonaren artean eramaten zuten etxeko martxa.

Baina hitz egin dezagun orain aisialdiaz... Nolakoak izaten ziren zure gaztetako festak Astigarragan?

Plazan izaten genuen ttun-ttuna. Suelton egiten genuen dantza lehenengo eta baltsa ondoren, "al agarrao". Baina gure amarekin hamarretan etxean egon behar zinen bestela zigorra zegoen.

Eta igandetan, zein zen plana?

Igandetan eguraldi ona eginez gero Oialumera. Eta euria egiten bazuen Hernaniko Tilosetara, bertan txurreria zegoen eta bertan elkartzen ginen gazteak txokolatea hartuz.

Hori gaztetan, eta ezkondu eta gero?

Senarra eta hurrekin Ubara, Ereñozura joaten ginen festetan baina iganderoako plana arratsan sagardotegira joatea izaten zen, Barkaiztegiara.

Kaxuela goxoa prestatu eta han biltzen ginen... igandero sagardotegia bete egiten zen gizon eta emakume elkarrekin.

Gauzak asko aldatu dira orain.

Datorren Santa Ana egunean egingo ditu 86 urte Juanita Aldanondok... bizi guztian baserri bizi izan den emakumearentzat ez da urteak betetzeko egun txarra. ■

GARBIÑE SAM MIGEL




Euskal Autonomia Erkidegoko animalia espezie mehatxatuak, geroz eta gehiago baina aski?

Lehenengo organismo biziduna Lurrean azaldu zenetik denbora luzea iragan da, eta denbora tarte honetan tamaina izugarriko hondamendiak jasan behar izan dituzte bizidunek. Biologoek ustez zalantza gutxi daude, Lurra egun bizi duen iraungipen prozesua aurrez garatu diren beste bost iraungipen prozesuekin lehiatu dezake.

1993an, Harvard unibertsitateko E.O. Wilson biologoak egin zuen estimazioen arabera, urtean 30.000 espezie desagertzen ari ziren. Maila baxuagoan emaitza adieraziz, datuak are gordinagoak ziren, izan ere, orduko hiru espezie ari dira desagertzen. Zenbait adituk diote bioaniztasunak egun bizi duen krisia Wilsonen duela 20 urte jakitera eman zuena baino latzagoa dela, eta dagoeneko izena ere jarri zaio prozesuari, "Seigarren Iraungipena".

Tamalez bioaniztasunaren galera ez da soilik eremu konkretu batzuetan eman, dimentsio globala du eta, narriadura prozesu handia jasan duen gunen hiritarretan emateaz gain, mehatxu gutxi jasan dituzten eremu babestuetan ere gauzatzen ari da. Horrez gain, iraungipen prozesu honen eragina bioaniztasuna osatzen duten talde taxonomiko guztiek pairatu dute, taxon batzuen kasuan are modu gordinagoan, ornogabeen kasuan, adibidez, koralak oso modu bizkorrean desagertzen ari dira, eta ornodunen artean, aldiz, talde mehatxatuena anfibioak dira.

Gainbehera prozesu hau geldiarazteko lanabes desberdinak baliatu ditu gizakiak; horietariko bat Espezie Mehatxatuen zerrendak egituratzea izan da. Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan




Munduko Fauna eta Flora talde desberdinen banaketa espezie kopuruaren arabera.

1994. urtean Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Katalogoa sortu zen. Bertan fauna edo flora espezie, subespezie edota populazioak barneratu ziren, bai-

na hutsune handiekin, izan ere, mundu mailan espezie kopuru handiena duen taldetik (hau da ornogabeetatik; 1. Irudia) ez baitzen espezie bat bere ere zerrendan sartu.

Geroztik aldaketak jasan ditu zerrendak eta lehen katalogoan barneratu ez ziren zenbait taxonetako bizidunak egun zerrendan daude. Azken berrikuntza 2013. urtean gauzatu zen, lehen aldiz ornogabeak zerrendan sartu ziren eta horrez gain ornodun espezie gehiago zerrendatu ziren, arreta berezia saguzarren ezarriz (2. Irudia). Gaur egun 158 espezie babestu daude EAEko Espezie Mehatxatuen Zerrendan. Espezieen ia % 60 hegaztiak dira, % 20 ugaztunak eta % 11 herpetoak (hau da anfibio eta narrastiak). Lehen aldiz ornogabeak zerrendan sartu ziren baina euren pisua portzentaian ez da esan-guratsua, izan ere, ez baitziren % 6ra iristen.



EAEko Espezie Mehatxatuen Zerrendan dauden lau kategoriatan dauden espezieak taxonak aintzat hartuz.

Euskal Herrian bioaniztasunaren ezagutza eta jarraipena historikoki ez da gizartean errotua egon den jarrera edo portaera izan, gauzak honela zenbait animalia espezieen inguruko ezagutza oso mugatua da eta ondorioz nekez jakin liteke espezieen bilakaera gainbehera edo goranzkoa den. Berriki herritarren parte hartze aktiboa eskatzen duen plataforma martxan jarri du Aranzadi Zientzia Elkar-teak, beste hainbat erakunderen laguntzaz. Ornitho.eus plataforman izen ematen duen edonork bere udalerrri edo ingurumarian topatzen dituen animalia espezieen inguruko informazioa sartu ahal izango du, euskarri digitalean. Jende asko animatuko baltz EAEko ornodun eta zenbait ornogabe taxonen atlasa sortu ahal izango litzateke, betiere jendearen parte hartze aktiboa bultzatuz.

Eta Astigarragan zer?

Tamalez, Astigarragan ez da bioaniztasunaren inguruko azterketa sakonik egin, ez behintzat anfibio, narrasti, saguzar eta ornogabeen kasuan.

Aurrez adierazi moduan, ondo legoke herritarren parte hartze aktiboa bultzatuz, www.ornitho.eus plataforman datuak sartzten joatea, honela udalerriko bioaniztasunaren inguruko ezagutza areagotzeaz gain, euren kontserbaziorako neurriak hartu ahal izango baitira, eremu konkrituak babestuz (gehienbat ugaltokiak edo kabi lekuak).

Herpetologia sailak Astigarragako udalerrian burutu dituen ingurunean egin dituen laginketak baliatuz esan liteke ez dagoela anfibio espezie mehatxaturik bertan, baina azken berrikuntzaren ostean anfibioentzat egokiak izan daitezkeen habitata (hezeguneak) beste animalia espezie batzuen bizileku izan daitezke.

Sorgin orratz eta burruntzien inguruko ikerketa lan bat martxan jarri beharko litzateke, izan ere, EAEko espezie mehatxatuen zerrendan hiru odonato edo burruntzien espezie bi babes maila gorenetan sartu baitituzte, galzorian bat eta kalteberan beste biak. Astigarragako hezegune sarea mugatu eta lagindu beharko litzateke, putzu, uraska, areka, urmael edota bestelako hezeguneak (errekak barne) lagindu beharko lirateke, izan ere, tamainaz txikiak diren habitat hauek oso eremu aberatsak baitira bioaniztasunaren ikuspegitik. Anfibio, burruntzien eta sorgin-orratzeaz gain, beste ornogabe urtarrentzat garrantzitsua baita, bai eta beste zenbait ornodunentzat ere. Adibidez, saguzar asko eta asko bertan elikatzen dira, izan ere, eltxo eta bestelako ornogabe hegalaria jan behar izaten dituztenez, bertan sekulako elikagai pila topatzen dute.

Amaitzeko, arreta berezia ezarri beharko litzateke tamaina txiki errekastoetan. Azken urteotan ur-sistema lotikoen egoerak hobera egin badu ere (parametro fisiko-kimikoen emaitzak hobetu egin dira), oraindik erreka bazterreko landaredia eraldatzeko lan asko eta asko egin beharko da.

Landare exotiko inbaditzaileak erazi beharko lirateke eta ahal den neurrian bertako landaredia ezarri ibar-baso sendo bat egituratuz. Errekasto hauetara doitzen ziren zenbait bizidun mehatxatu bertan berriz topatzeko, eraldaketa hau nahitaezkoa da. Euskal Herrian mehatxatuta dauden odonato espezie gehienak erreketan bizi dira (3. Irudia), eta duela hamarkada batzuk Euskal Herriko errekastoetan erruz bilatzen zen karramarroa (*Austro-*



Kontserbazio egoera onean dauden errekastoetan bizi den odonato espeziea (*Oxygastra curtisii*).

potamobius pallipes) ere habitat mota hauetan bizi zen. Hori berriz ere gure errekastoetan egon dadin saiakera batzuk egin dira Gipuzkoako zenbait errekastotan, baina pauso hori eman aurretik, errekastoetan egoera orokorrak hobera egin beharko du, eta lan horretan gure partaidetza ezinbestekoa da. ■

Ion Garin Barrio

(Aranzadi Zientzia Elkarteko herpetologia saila)



XVII. mendeko Gipuzkoako mapa

“URUMEA IBAIA ANTZINAKO BIZITZA ITURRIA ETA GARAIKO AUTOPISTA IZAN ZEN”

ASTIGARRAGA Aldizkariaren lantaldea

Sagardoaren Lurraldeak Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalekin eta Donostiako Aquarium-arekin elkarlanean “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa ibiltaria martxan jarri berri du. Erakusketa 2016ko apirilaren 20tik 27ra bitartean Hernanin ikusgai egon da, maiatzaren 13tik 22ra bitartean Usurbilen eta irailaren 16tik 25era bitartean Astigarragan ikusgai izango dugu, Sagar Uztarako antolaturiko egitarauaren barruan. Erakusketaren bira 2017an Donostiako Aquarium-ean amaitzea aurreikusia dago.

“Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa ibiltarirako edukiak eskuratzeko hainbat artxibo eta funtsetan ikerketa lanak gauzatu ditu Lourdes Odriozola Sagardoetxeako historialariak: Hernaniko Udal Artxiboan, Gipuzkoako Artxibo Orokorean (Tolosa), Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan (Oñati), “Archivo Histórico Provincial de Zaragoza”-n, Valde-Espina Markesaren Fondon, Mutiozabal Fondon, “Archivo General de Marina del Viso del Marqués”-en (Ciudad Real) eta “Archivo General de Indias”-en (Sevilla). Lourdes Odriozola historialariarekin egon gara eta kontatu digun moduan, asko dira ibaiak gordetzen dituzten sekretuak, eta erakusketa honekin ezagutzera eman nahi dira herritarron artean gure iraganaren inguruko ezagutza hori zabaltzeko.



Gabarraria Urumea ibaiko Donostiako pasabideko portu batean (Iturria: Ur eta Lur)

Astigarraga aldizkaria:

Zer da erakusketa honetan aurkituko duguna?

Lourdes Odriozola: Erakusketa honetan bailarako biztanleen antzinako bizimodua erakusten da. Jendea ibaiara begira bizi zen hainbat arrazoi-rengatik: batetik, ura lortzeko, bestetik, elikagaiak lortzeko (arrantza) eta azkenik, ibaiaren beste modu batean erabilia bizimodua beste modu batera egin zezaketela ikusi zutelako, bai merkataritzarako, arrantzarako, untzigintzarako, burdingintzarako, etab. Errotak eta burdinolak indarra lortzeko erabiltzen zituzten eta biztanleria inguru horietan kokatzen joan zen bizimodua antolatzeko, gizarte harreman ezberdinak sortzeko, etab... Eta bata eta bestearekin, ibaiak harremanetarako giltzarri bihurtu ziren, bai bailarako jendearen artean, bai Europako beste herrialdeekin.

AA: Garaiak asko aldatu dira ordea. Zein paper betetzen zuten ibaiak biztanleen eguneroko lanean?

LO: Gipuzkoara trenea iritsi bitartean (XIX. mendea) jendea ibaiari begira bizi zen. Jendeak sagastiak zituen, baina ibaiaren gertu zuten, adibidez arrantzarako, edo ura edateko. Poliki-poliki ibaiak lurra ematen ez ziena lortzeko bidea ematen ziela ikusi zuten; XIII. mendeko, ibaiaren merkataritzako erabiltzen zen Usurbil, Hernani, Astigarraga edota Donostia artean. Horregatik, jendea

garai hartako autopistaren inguruan kokatzen zen; ibaiaren inguruan, alegia. Horrela sortu ziren gizarte harremanak eta hainbat lanbide, besteak beste, gabarrariarena edo latsariena. Eta noski, ibaiari etekina ateratzeko, azpiegiturak beharrezkoak ziren: portuak, lonjak, errenta-etxeak...


AA: Ibaiak, beraz, oso garrantzitsuak izan ziren...

LO: Hala da. Gaur egun paisaia eta ibaiaren itxura asko aldatu da, baina garai hartan ibaiaren asko zaintzen zuten, beraientzat altxor bat baitzen eta gainera garai hartako autopista. Zalantzarik gabe, ibaiak pertsonen nahiz produktuen garraiorako biderik egokienak eta azkarrenak ziren. Lurreko komunikazioak Hernani eta Astigarragatik igarotzen ziren errege bideetatik gaudatzen ziren, baina kostu handiagoa zuten. Horregatik, ibaiak baliatzen zituzten produktuak sartu eta ateratzeko. Urumea bailaran zegoen aberastasun iturri garrantzitsuenetarikoa base-ri guztietan elaboratzen zen sagardoa izan zen, eta baita burdina ere, batez ere Hernanin, XVIII. mendean ainguren produkzioarako puntako teknologia zentroa izan zelarik.

AA: Zer garraiatzen zen Urumeako ibaian eta nola?

LO: Gauza asko garraiatzen zen ala eta gabarretan: sagardoa, dolaretako piezak, egurra, burdina, burdinaren minerala, behiak, idiak, ardiak, txerriak...





Urumea ibaia Ergobian XVI. mendean. Bertan Ergobiko etxea, zubia, bidesaria, izokinak harrapatzeko sarea, bidaiarien itsasontzia eta sagastiak ikus daitezke (Iturria: "Archivo Historico Provincial de Zaragoza")

AA: Abereak garraiatzen zirela esaten duzu?

LO: Bai, eta horien artean garrantzia handia zuten behiek eta idiek. Frantziatik etortzen ziren eta dokumentu zaharretan behin eta berriz aipatzen da Urumea Nafarroara eta Gipuzkoako barneko herrialdeetara abereak eramateko bide nagusia zela. Hau da, "autopista" nagusia zela abereak garraiatzeko, baina, gaur egun bezala, bidesari bat ordaindu behar izan zuten alde batetik bestera pasatzeko. Urumeako bidesaria Ergobian kokatua zegoen eta Murgiako Markesaren eskubide bat zen.

"Ergobiako bidesarian abereek, burdinak, sagardoak, egurrek eta portuan "batel handia"n jarritako beste salgaiek tasa bat ordaindu behar izaten zuten"

AA: Murgiako Markesak Urumea ibaian ere bazuen boterea beraz...

LO: Urumearen artoa Murgiako jaunak kontrolatzen zuen, Murgiako muinoan bizi zen eta bere eskumeneko lehendabiziko kokalekuak Urumea-

ren inguruan gauzatu ziren. XV. menderako bizi-lagun batzuei erregaliak eman zizkien lehendabiziko etxeak Ergobian egiteko. Astigarragarrek Murgiako jaunarekin hitzarmena sinatu zutenean, sari batzuk egiteko beharraz gain, funtsezko bi gauza lortu zituzten: bideetan libreki igarotzea eta ibaiaren erabilera libre. Ibaia libreki erabiltzeko eskubidea izan zuten unetik aurrera, Santiagomendi suspertzen hasi zen: baserriak eraikitzen hasi ziren eta ibaia sagardoaren salerosketarako leku bilakatu zen. Erakusketan Urumea eta Oria ibaiek sagardoarekin izandako lotura nolakoa izan zen azaltzen da.

AA: Zergatik izan ziren ibai hauek hain garrantzitsuak?

LO: Ibai hauen garrantzia beren ur bazterretan ziztuzten portu kopuruagatik ezagutzen da, kostako portuak bezain garrantzitsuak baitziren. Bestalde, "Portu" portua, Hernanin, eta "Ergobia" portua, Astigarragan, oso garrantzitsuak izan ziren. Urumea ibaian, portu azpiegituraren ikuspuntutik, 3 puntu klabe daude: Santa Catalina Donostian, Portu Hernanin eta Ergobiako kasua, bere ontziola eta alde batetik bestera igarotzeko bidesariarekin, ga-



Gipuzkoara etortzen ziren bidaiariei atentzioa gehien ematen zien lanbidea Urumea ibaiko latsariena zen (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea)

raian ezagutzen den lehendabiziko garraio publikoarekin (gabarrariarena): bidaiarien itsasontziak pertsonak ibaiaren ertz batetik bestera pasatzeko funtzioa betetzen zuen. Erakusketa honetan, Zaragozako artxiboan aurkitutako plano bat jarri dugu; bertan, bidaiarien itsasontzia eta XVI. mendeko bidariaren kokalekua ikusi daitezke.

“Oria ibaia ontzigintzan berezitu zen; Urumea ibaia, burdina eta sagardoan”.

AA: Gabarraria aipatu duzu... lanbide gehiago sortu al ziren ibaiei lotuta?

LO: Sagardogintza, burdingintza, ontzigintza, tona edo dolareak egiteko arotzen lana, aingura fabrikak... Garraioarekin ere, idi eta gurdi jabeek botere handia zuten, izan ere, ibaiak zati batzuetan ez ziren oso sakonak eta gabarrek eta alek ezin izaten zuten pasa. Beraz, idiekin lotu eta eramaten ziren. Gabarrarien lana ere sortu zen, biltegietan aritzen zirena, karga eta deskarga... eta Urumean oso famatuak egin ziren arropa garbitzen aritzen ziren emakumeak, latsariak. Ibaiei esker, inguru hauek puntakoak ziren teknologian.

“Urumean oso famatuak egin ziren arropa garbitzen aritzen ziren emakumeak, latsariak”

AA: Baina teknologian punteroak izanda, nola iritsi zen gainbehera?

LO: XIX. mendeko garraio iraultza eta industria iraultzen ondorioz ibaiak garrantzia galdu zuten: lehendabizi tren sartu zen. Ordura arte ibaiak ziren garraibide azkar eta merkeena, baina tren azkarragoa eta merkeagoa da eta distantzien kontzeptua aldatu egin zuen. Bestalde, XVI. eta XVIII. mendeetan errege bidea pasatzen zen hemendik, baina XIX. mendean errepide nagusia, gaur egun N-1 dena, ireki zen Donostia eta Andoain artean eta hau baztertua geratu zen. Eta industrializazioak urak zikindu eta beste sektore batzuk indartu zituen: Donostian, finantzek eta tabernari eta ostalarien sektoreek egin zuten gora: aisialdiak. ■



Hala bazan eta ez bazan, Anamairen sagardoa Urumean barrena jaisten zan...

OLATZ Mitxelena

Ana Maria izena jarri zidaten, Anamai deituko bazidaten ere. Uztailaren 26a zen mundua lehenengoz usaindu nuen eguna; egun beroa, oso beroa, hezea. Euskal Herriko udako egun sargori horietakoa; izerdi tantek kopetatik behera, bizkarrean zehar ibaiadar txikitxoak irudikatzen dituzten horietakoa. Ama gajoak mela-mela blai eginda ekarri ninduen mundura gure etxeko sukaldean, gure aitak urduritasunak larrituta bizilagunen atea jotzen zituen bitartean. Ni nintzen lehenengoa, etxe handi hartako lehenengo fruitua.

Egunen joan etorrian, amaren bularrari itsatsita baserriko txokoak ezagutu nituen. Haurdunaldia eta erditzea ere ez baitziren atsedean aitzakia. Lana sobera zegoen gure etxean, eta esku guztiak ziren garrantzitsuak. Nire ama indartsua zen, eta aitak barre txiki batekin beti zioen erditze guztien ondoren are eta indar handiagoa zuela.

Lan asko bazeuden ere, gure ingurune honetan sagarra zen altxor preziatua, oraindik lantzeaz zegoen diamantea. Sagarraren baitan antolatzen genituen urtaroak, urteak, bizitza. Dolarearen azpian, eskuin aldean bizi ginen gu. Baina ez gure jauntxoa, etxearen eta sagastien jabea. Donostiar merkataria, aberatsa. Beti zioen amak: "Dirua non, begia han". Eta harentzat egiten genuen guk urteko lana. Hark trukean bizitokia eta gure produktuaren zati txiki bat itzultzen zizkigun bitartean.

Donostia, gure hiriburua. Txiki-txikitatik Donostiaz hitz egiten bagenuen ere inoiz ez nuen bertako lurrik zapaldu. Pare bat lagun joanak ziren neskame lanetan bertara 12 urte bete zituztenean. Bazirudien hara joan eta etxera itzultzea ezinezkoa zela, eta Donostiari banion halako errezelo bat, hiriak dena eskainiko balu bezala, Urumean barrena jaisten zena berriro nire albora itzuliko ez balitz bezala. Merkataritza hiri garrantzitsua omen zen, besteen sarrera, gure irteera. Salerosketa puntua. Donostian elkartzen ziren barnealdeko produktuak eta munduko hainbat eta hainbat tokitatik etortzen ziren besteak. Hara eramaten genuen guk ere gure etxean maitasunez lantzen genuen produktua, gure etxeko sagardoa. Donostiako gure jauntxoaren sotoko kupela handietan gordetzen zen, gure muztioa sagardo egin arte. Eta handik irteten zen etxeetara, tabernetara, itsasontzietara...

Nik ez nuen neskame joan nahi. Baserriko lana gogorra zen, bai, baina ni nintzen etxeko alaba, zaharrena, eta nire lurra nuen maite. Nik ikasi nuen txikitatik sagarrondoak zaintzen, sagardoa usaintzen, dastatzen, egiten, hobetzen. Nire bizitza zen. Ez nuen beste etxe batera ezkontzeko inondik inolako nahirik. Nire etxea eta lurra nituen maite, nahiz eta inoiz ez nituen jabegoan izango. Nireak sentitzen nituen nik lantzen nituelako. Ezkontzekotan ere izan nintzen behin batean, baina maite nuen hura urrutira joan zitzaidan niri, egiten genuen sagardoarekin

batera. Urumean behera ikusi nuen azkenekoz 20 urte egin-berritan, sagarrondoak loratzen hasi ziren udaberri hartan.

Gure bizimodua kate bat zen. Guk sagardoa egiten genuen hemen eta han edaten zelako, lurrean eta itsasoan edaten zelako; eta sagardoa egiten zenez gu bizi ginen, eta, halaber, itsasgizon-emakumeek bizirik irauten zuten. Urte haietan Ternuarainoko bidaiak egiten zituzten euskal arrantzaleek. Nik ideiarik ere ez nuen non zegoen baina ikusirik zenbat sagardo behar zuten, urruti behar zuen izan! Bazirudien gure itsasgizon eta emakumeak zirela indartsuenak, sendoenak. Bazirudien bakarrak zirela gaixotzen ez zirenak, garai hartan itsasoan amesgaiztoa zen eskorbuto gaitzarekin...

Gure Urumeako portuan esan nion nik udaberri euritsu hartan nire maiteari agur. Agur. Urte batzuk lehenago ezagutu nuen leku berean. Aita garaiko gabareroa zuen, ibaian zehar ibiltzen ziren ontzien, Gabarra edo ala, garraiolaria. Eta leku horretxetan ezagutu nuen baserriko semea. Bizitzak ehiztari bihurtu zuen Urumean zehar aitak Donostiara, ibaia



itsasoarekin batzen zen lekura, jaitsi zuena. Gure jauntxo Donostiarrek bazuten negozio honen berri eta mutil indartsuak interesgarriak ziren oso itsasorako. Eta hala, Urumean zehar abiatu zen ordu arte gure sagardoa jaitsi zen bide beretik, lehenengoz bizitzan etxetik urrun, gugandik urrun, baina sagardoa hurbil zuelarik. Gutun asko idatzi nizkion nik ibaiaren ertz hartatik, Ternuarainoko bidaiari iritsiko ziren esperantzan.

Pasaiatik abiatzen ziren itsasontziak Ternuarantz. Hala, Donostiaraino Urumea ibaian behera garraiatutako sagardoa Pasaiako portura bideratzen zutela kontatzen zuten ibaigizonek. Litro ugari sartzen zuten itsasontzietan, eta behar horiei denei erantzuteak sagardoaren produkzio eta merkaturatze handia eskatzen zuen.

Gure portutik gertu baziren beste hainbat ere. Zaharra naiz dagoeneko eta memoria ez dut oso lagun... baina oker ez banabil Astigarraga eta Ergobiaren ar-

tean gutxienez lau portu bazirela esango nuke: Arbizu Portu (Aiozategi bezala ere ezagutzen genuen), Ergobia, Murgia eta Gartziategi. Baina ni neu adinean aurrera gutxituz eta gehituz joan ziren, izenak aldatuz joan ziren.

Sagardo guztia, dena den, ez zuten Donostiako aberratsek eramaten. Urteko uztaren erdia, normalean, gure baserrian geratzen zen. Era antolatuan zabalitzen ziren sagardotegiak, bata bestearen atzetik. Herrian hainbeste baserri-dolare bazeuden, zozketaz erabakitzen zen bakoitza irekitzeko txanda; eta dolare bakoitzeko kupela bat bukatu ahala zabaltzen zen hurrengoa. Guztietako sagardoa edango zela ziurtatzen zuten horrela. Herritarrentzako irekita egoten ziren, baina jendea ez zen, gerora ohitura bilakatu den moduan, bertara jatera joaten. Pitxarretan saltzen genuen zukua, eta kupela bakoitza marratxoaz apaintzen genuen kontua ez galtzeko! Horretan abila nintzen ni, ez zidan saldutako pitxer batek ere alde egiten eta horregatik gustatzen zitzaion amari ni bertan izatea.

Etxe guztiek ez genuen sagardo kopuru berbera

egiten. Sagardotegi bakoitzean sagar-zuku kopuru ezberdina egoten zen, baina ez uztaren edo produkzioaren arabera, nagusien eskuzabaltasunaren arabera baizik. 1765. urtea izango zen lege zaharra aldatu zutena. Hortik aurrera, herritarrek edo erosleek ez zeukaten ordena jakin bat errespetatu beharrik, eta sagardotegiek eskaintza zabaltzen hasi ziren, kazuelatxoak kasu.

Zuei begira nago orain, Astigartarroi begira nago orain, zuek nire garaira begira jarri zaretan momentu honetan. Lizeaga eta Petritegi sagardotegien historian kuxkuxeatzeak Urumea azalera ekarri duen garai honetan. Nire burua ez da gazte garaian zena eta kuttunak nituen oroitzapen asko han nonbait galduta gelditu dira. Mesede bat eskatuko dizuet, arren: galdetu liburuei, galdetu dokumentuei, bilatu gure berri eta ziur beste hainbat kontakizun berreskuratu ahal izango dituzuela nire oroimenaren upategitik. Hala bazan eta ez bazan... ■

Agur denori!



Con la colaboración de este año, mi deseo es decirles agur. He sido tan feliz hablando de mis vivencias y recuerdos a través de mis pequeños artículos en esta revista, que en este momento de la despedida me invade la nostalgia. **Pienso que mi oficio podría haber sido el de pregonero o dador de noticias.** Así me he sentido durante estos años trayendo del pasado esos recuerdos, vivencias y personajes del Astigarraga de antaño.

Isabel Almandoz Almandoz

El pregonero

Hace años también en Astigarraga existía el personaje del pregonero. Hacía su trabajo en la bajada de la cuesta de la iglesia en la que había una pequeña plazoleta con su rústica fuente y un abrevadero, que era bien aprovechado por el ganado y para la verdura que allí se limpiaba al lado de la carretera. Junto a esa fuente había un pequeño promontorio que, seguramente por azar, se había escogido para este menester de pregonero, que tuvo gran importancia durante muchos años. Recuerdo a Juanito en el desempeño de este oficio del Ayuntamiento de manera puntual y amable en los días buenos y también cuando azotaban las inclemencias del tiempo.

Al terminar la misa dominical, y una vez bajada la cuesta de la iglesia, la parada oficial se hacía allí. El redoble del tambor fuerte y sonoro hacía que los presentes guardaran un silencio respetuoso para escuchar las noticias del pregonero. Muchos se quitaban las txapelas en señal de respeto. Después de un segundo redoble de tambor para los más rezagados, se daba inicio al pregón: De parte del sr. Alcalde hago saber... una retahila de impuestos del Ayuntamiento, de la Diputación para costear obras y proyectos, noticias sobre la marcha de los asuntos municipales y otras noticias que interesaban al vecindario. Así todos los domingos. De esta manera simple y sencilla el pueblo estaba al tanto de todo lo que sucedía. Al término del pregón se hablaba y comentaba en una buena tertulia en la que participaban los que habían venido de lejos, de los caseríos de Santiagomendi, y los que procedían de las casas de alrededor. Esa era la manera de estar informados, aunque también desde el púlpito de la iglesia se daban noticias sobre la vida del pueblo, nacimientos, matrimonios, defunciones...

Al visualizar esa plazoleta donde se reunía la gente para oír el pregón, me ha venido a la memoria otro personaje que con su trabajo y simpatía se ganó el cariño del pueblo, José Agustín, el carnicero, que tenía su negocio enfrente de la plazoleta, cruzando la carretera. Recorría todos los caseríos buscando las mejores reses para vender a sus clientes que no sólo eran de Astigarraga. Muchas familias de San Sebastián tenían en sus cámaras los sabrosos cárnicos de José Agustín. En sus primeros años hacía su recorrido en bicicleta. Con el tiempo,

compró un cochecito verde que hizo pasar las moradas a los que iban por detrás. Formaba colas y retenciones con su prudencia extremada. Aunque a veces resultaba molesto esta manera de proceder de nuestro carnicero estaba totalmente integrada en el devenir diario del pueblo.



PEDRO Garmendia, Astigarragako herriak izan duen azkeneko pregonaria, bere bandoa botatzen 1970eko hamarkadan, eskuetan paper-albistea duela, Joxe Agustin Aldabaldereen harategi aurrean. Bere azkeneko hiru bandoak, 1975ean sortutako ASTIGAR Elkarteak emandako albistek izan ziren.

A través de Juanito y Joxe Agustin y otros personajes que he ido recordando a lo largo de estos años, he querido dar unas pinceladas de lo que fue Astigarraga y a través de ellos y sus anécdotas recordar y rendir un homenaje a todas las mujeres y los hombres que han vivido en este pueblo y que han hecho de Astigarraga el lugar que es hoy. ■

ATEZ ATEKOA 4, BOSGARREN EDUKIONTZIA 6

2013ko apirilaren 2an jarri zen abian Astigarragan hondakinak biltzeko atez ateko sistema. Sistema ezarriko zela iragarri zenetik hika-mika handia izan da herrian. Hiru urte hauetan sistemak izandako emaitzak hortxe ditugu eskura.

Sistema ezarri eta hiru urte pasatxora, 2016ko apirilaren 17an, hondakinak biltzeko sistemaren inguruko galdeketa egin zuen udalak, eta hauek izan ziren bertako emaitza ofizialak.

Azkeneko urteetan bi talde nabarmendu dira hondakinen kudeaketako bi sistemen inguruan: Astigarraga Garbia eta Zero Zabor. Bi talde horiei bina galderari labur erantzuteko eskatu diegu. Hemen, beraz, haien erantzunak.

1.- Zein balorazio egiten duzue galdeketa-
ren emaitzaren inguruan?

2.- Eta hemendik aurrera zer?

ZABOR ZERO

* Emaitzak hor daude. Atez ateko sistemaren aldeko apustua egin dugu taldeak baina ez dugu burua galtzailatzat ikusten. Eskaintzen ziren bi aukerak izan daitezke onak, betiere edukiontzien aldeko askok eskatzen duten "erosotasun" horrek gaikako bilketan ziren emaitza paregabeak okertzen ez baditu.

Azken urte hauetan atez ateko bilketa sistema eza-gutu dugu eta emaitza oso onak izan ditugu, pentsaezina zen 80 tona errefusa sortzetik 20 tona sortzera pasako ginenik, eta esan emaitzez gain hondakinen inguruan kontzientziazioa ere indartzea lortu dela.

* Argi erakutsi da gaikako bilketa indartzea posible dela eta bide horretatik jarraitzea espero dugu. Udalak du bilketa zerbitzuaren eskumena eta orain arteko emaitzak mantentzeko baliabideak jartzeaz aparte, asmoa ere izango duela espero dugu. Taldearen aldetik, urrunago doan helburu nagusi baten alde borrokatzen jarraituko dugu, agerian utzi dugu hondakinen bilketa egokia eginik zabor kopurua oso txikia dela, eta horrenbestez Gipuzkoan hondakinen errausketarako azpiegiturarik ez dugula behar. Hori da zabaldu nahi dugun ideia, ulergaitza dirudi errausketaren alde apustua egiten jarraitzeak, ingurumena, osasuna eta etorkizun arriskuan jartzen baititu.

EMAITZAK

Hautesle kopurua	4.692
Botoa eman dutenak	2.769
% bozka	59,2
Boto zuriak	3
Baliogabeak	17
Atez atekoaren aldekoak	1.109
Edukiontzien aldekoak	1.640

ASTIGARRAGA GARBIA

* Aurreko legealdian atez atekoa jarri aurretik Astigarraga Garbia plataformak bilera egin zuen Bilduren gobernu taldearekin herri galdeketa deitzeko eskatuz. Ez zitzaigun kasurik egin.

Azken Udal Hauteskunde emaitzak ikusita kontsul-taren aldeko alderdiak babestu zituen astigartarren gehiengoak. Orain gobernuan den PNVk programan bere egin zuen kontsulta deitzea eta ikusi da hitza bete dutela. Arrakasta kontsulta egitea izan da. Astigarragan erroldatutako 16 urtetik gorakoen %60k hartu du parte, datu benetan esanguratsua. Galdetzen ziren bi aukeren artean herritarren % 60k erabaki du etxeko hondakinak edukiontzi sistema bidez jasotzea nahiago duela, birziklagarriak diren frakzioak egunero ateratzeko aukera ematen duelako.

* Gaikako sistema jasangarria, eraginkorra eta aha-lik eta erosoena ezartzea nahi dugu, herritarrok sortzen ditugun hondakinen kontzientzia hartzeko kanpainak eginez gure izenak dioen bezala Astigarraga garbi mantenduz.



Astigarragako JAIĀK 2016





Uztailaren 22a, ostirala

- 10:00** IGEL JOKOA haurrentzat Norberto Almandoz plazan.
- 12:00** TXUPINAZO TXIKIA eta kalejira.
- 14:00** HERRI BAZKARIAK.
- 16:00** HAURRENTZAKO TAILERRAK Foru plazan.
- 18:00** TXOKOLATE JATEA Foru plazan.
- 19:00** TXALAPARTARIAK, PREGOIA eta TXUPINAZOA.
- 19:15** BURUHANDI eta ERRALDOIAK Foru plazatik abiatuta.
- 20:00** Gazte Asanbladaren txosna irekiera.
- 23:00** DJ-a J. Barandiaran plazan eta KONTZERTUAK txosnan.



Uztailaren 23a, larunbata

- 10:00** 3x3 SASKIBALOA kiroldegan.
- 11:30** JOLAS PARKEAK ikastolan.
- 13:00** Gazteen trikipoteoa.
- 14:00** HERRI BAZKARIAK.
- 16:00** DANTZALDIA N. Almandoz plazan.
- 17:00** JOLAS PARKEAK ikastolako atarian eta Txomiñenea pelotalekuan.
- 18:00** TXARANGA herriko kaleetan.
- 19:00** EMAKUMEEN I. GIZA PROBA TOPAKETA Foru plazan.
- 23:00** UMORISTA J. Barandiaran plazan eta KONTZERTUAK txosnan.

Uztailaren 24a, igandea

- 10:00 TOKA Norberto Almandoz plazan.
- 11:00 PAINTBALL PISTA ikastolan.
- 12:30 Haurrentzako ANTZERKI MUSIKALA J. Barandiaran plazan.
- 14:00 HERRI BAZKARIA.
- 16:00 PAINTBALL PISTA -APAR FESTA ikastolako atarian.
- 18:00 TXARANGA eta SOKAMUTURRA TXIKIA Foru plazan.
- 19:00 BERTSO-RAP SAIOA txosnan.
- 23:00 DISKOTEKA J. Barandiaran plazan eta KONTZERTUAK txosnan.



Uztailaren 25a, astelehena

- 09:30 TXISTULARIEN DIANA.
- 10:00 HAURRENTZAKO IX TXIRRINDULARITZA PROBA.
- 10:30 JOKO TRADIZIONALAK.
- 11:00 MEZA NAGUSIA
- 12:30 UDALBATZAREN SOKA-DANTZA.
- 18:00 Astigar taldearen DANTZA SAIOA.
- 19:30 IDIEN PISATZEA Foru plazan.
- 19:30 HAUR BERBENA Sagardo plazan.
- 22:30 PERKUSIO IKUSKIZUNA.
- 23:30 KONTZERTUAK txosnan.
- 00:00 LARRAIN-DANTZA Foru plazatik.





Uztailaren 26a, asteartea

09:30 ZUBIETAKO JOALDUNAK eta HERRIKO TRIKITILARI GAZTEAK.

10:30 PILOTA JAIALDIA: Titin III- Sanchez eta Loidi-Begino pilotalekuan.

11:30 SAN JUAN BALEONTZIAREN ERAIKUNTZA-LANAK.

11:30 SAGARDO DASTAKETA.

11:30 IDI DEMA
1.500 kiloko harria, lau idipare: Etxabe-Altuna, Etxeko, Intxaurburu eta Pagadizabal.

12:00 AGIN LABURU eta AITOR MENDILUZE bertsolariak.

14:30 HERRI BAZKARIAK.

17:30 BINGOA Galtzaur elkartean.

18:00 HERRI KIROLAK Foru plazan:

- Herrien arteko gazteen herri kirol txapelketak.

- Herritarren arteko herri kirolen desafio handia.

18:00 ZIRKU IKUSKIZUNA Apeztegin.

19:00 BERBENA
J. Barandiaran plazan.

19:30 TRIKITILARIAK Foru plazan.

19:30 HEGALUZE PINTXOAK
J. Barandiaran plazan.

22:00 BERBENA J. Barandiaran plazan.

23:00 KALEJIRA PIROTEKNIKOA
Kale Nagusian.

Astigarragan

XVI. SAGAR UZTA 2016

VIII. KIZKI EGUNA

2016ko irailaren 25a, igandea, 13:00etan

Parte hartu!

700

KIZKI LAGUN

BILDU BAIETZ !!!

ZAZPIAK BAT KIZKIAREKIN



Antolatzaileak:

GOLDEA, Oiarzungo AEK, Goizueta herria, Sagardo Kofradia, Parte Zaharreen Bizi, Sagardo egunaren lagunak eta Errenteriako elkarteak

EKAITZA eta BAREALDIA

Udako egun eguzkitsu bat da. Herrixkako lakuan bainatzen ari den mutiko bat naiz. Bakarrik nago. Ez daukat lagunik inguruan. Lakuaren erdian, ur epelean etzanda, zero oskarbira begira nago. Zerbaiten zain nagoela dirudi, baina ez dakit, ordea, zer izan daitekeen. Egun berri baten zain, agian. Neure buruaren zain, behar bada.

Urtzi Leonet Santa Cruz


Beso eta zangoak poliki astinduz biraka hasi naiz. Gustuko dut igeri egitea. Ikasi aurretik lagunekin korrika aritzen nintzen, tximeleten atzetik, sekula harrapatzen ez genituen arren. Baina aitak irakatsi zidanetik, igeri egitea nahiago dut. Agian hil aurretik irakatsi zidan azkeneko gauza delako gustatuko zait hainbeste. Lagunek ere ikasi zuten, baina urertzetik urrutiratzeari errespetu handiegia diote. Ala nire beldur dira. Batek daki.

Batzuetan murgildu egiten naiz, azpian zer topatuko, baina lokatza, hondarra eta harri koskorren bat besterik ez dago bertan. Hor azpian ez da ezer ikusten, eta udako lehen egunetan ura oso hotz egoten da, baina ez dut beldurrik izaten. Behin ametsetan iduneko bat nuen. Iluntasunaren artetik argi printza bat ikusi, eta eskua bere inguruan es-tutzean konturatu nintzen aurkitutako altxorraz.

Baina ametsa besterik ez zen izan. Hala ere, noiz-bait topatuko dudan itxaropenik ez dut galdu. Eta ez dut galduko.

Paisaia aldatzen hasi da nire begien aurrean. Urtaroak arrapaladan pasa dira, urteak bata bestearen atzetik. Hodeiak laisterka. Euria zaparradan. Elurra mara-mara. Gau iluna isilean. Konturatzerako negu gorria iritsi da. Inoizko latzena izango dela dirudi. Hodeien artetik txinpartak ikus daitezke, talka bortitzen erakusgarri. Ekaitza has-tear da. Haizea ziztuka, uluka, ari da.

Orain erdi urtutako glaziar baten erdian dagoen gaztea naiz. Edonora begiratuta ere, ostertzean ez da mugarik ageri. Izugarria da. Izotza kraskatzen entzuten dut, puskatan uretara amildu eta olatuak sortzen. Bizirik dago, eta ez du gupida-





rik izango nirekin. Beldur naiz, baina horrela bakarrik izan naiteke ausart.

Umetan bezala, murgildu egin naiz. Ura ez dago izoztuta iada, baina askoz ere tenperatura baxuagoa dauka. Izpiritu anker batzuk somatzen ditut bertan. Antzinako munstroak, iluntasunaren ahaideak. Baina nik ere orban bera daukat barnean. Munduratu nintzenetik nirekin daramat. Hau ere aitarengandik jasoa. Erraiak kiskaltzen dizkidan betiereko sugarra. Eurak baino boteretsuagoa naiz. Badakite. Ez dira gerturatuko. Hala espero dut.

Eta uretan murgiltzen darrait. Umetan ez bezala, ezin dut hondoraino ailegatu. Pixkanaka, adorea ihesi doakit. Bila nabilena iduneko bat baino ederragoa da, eta bizia bera baino preziatuagoa niretzat, gu denontzat. Itxaropena. Hasiera berri bati ekiteko aukera. Azken ahaleginarekin hondoraino iristea lortu dut. Kanpoan ekaitza, baina barruan bare dago. Muns-

troak ez dira inondik ageri. Ez dakit nola, baina neure burua ikus dezaket, uretan, suspentsioan. Zain.

Halako batean, bizi osoan sentitu dudan hotzik sarkorrena nabaritu dut ezker besaurrean. Zerbaitek heldu nau besotik. Ez daukat beldurrik. Begiratu beharra daukat. Azkenean topatu ote dut?

Neskato bat da.

Zortzi bat urte izango ditu. Oso polita da. Gris koloreko begi haundiak dauzka, eta bere ile luze eta beltza uhinekin jolasean, barreiatuta dauka. Ekaitzaren koloreko soineko eder bat darama jantzita. Oinutsik dago. Hasieran goibel dagoela iruditu zait, baina irribarrea du ezpainetan. Ezagutu nau. Nik ere bai bera. Orduantxe bakarrik lasaitu naiz. Berak bakarrik lasai nazake. Nire barneko sua amatatu.

Eztanda bat. Milaka irudi zurrunbiloan.

Urertzean belaunikatuta nago, neskatoa magalean hartuta. Negarrez ari naiz. Gogor besarkatu nau. Bere bihotza indarrez taupaka somatzen dut, nire bularraren kontra. Pixka bat banandu eta begietara begiratu dit, inoiz inork egin ez bezala, behatzekin malkoak xukatuz. Bere begiradak gau ilunaren ondorengo egunsentiak baino gehiago hunkitu nau.

—Zergatik egiten duzu negar?

—Beti esan izan didate piztiaren begiak dauzkadala. Ez al zara nire beldur?

—Ez. Baliteke zure barneko piztia beldurgarria izatea, baina inork ez du bere edertasuna aurkitu nahi izan.

Berriz besarkatu nau.

—Eta nik banekien nire bila etortzekoa zinela. ■

Santioren XIII. mendeko irudia

Elizbarrutiko Museo berrian

Joan den udaberrian Donostiako Alde Zaharrean, Santa Maria Basilikan, Elizbarrutiko Museoa berria zabaldu da. Museo hau garai batean Amaran egon zen, Famili Santuaren eliza ondoko lokal batean eta orain Santa Maria-ko Santa Marta nabean jarri dute. Gipuzkoako artxibategi, sakristia, ermita, komentu eta parroketan jasotako obrekin osatu da museoa nagusiki.



Museoko eraikitze lanak Rafael Moneo arkitektoaren estudioak egin ditu, Pedro Elcuaz arkitektoaren zuzendaritzapean.

400 metro karratuko espazioan Erdi Aroan hasi eta arte garaikideko 150 arte lanetik gora daude ikusgai.

Adituen iritziz Museo honetako harribitxietako bat, Santio Mendi ermitan zegoen Santio (Done Jakue) apostoluaren eskultura da. Erdi Arokoa dela esaten da, XIII. mende bukaerako edo XIV. mende hasierakoa. Irudi txikia, 38 cm neurtzen ditu, eta alabastroz egin da. Idulki edo peana baten gainean dago, hau ere alabastrozkoa, eta soka eta zig-zag marrez apaindua. Idulkiaren gainaldea Santio irudiaren oinarria banio txikiagoa da. Santiok oinezko erromes itxura dauka. Jantzia tunika luze bat da eta oinutsik dago. Soinean gurutzatuta, eskuinaldean zakua eta ezkerrean, uraren kuitxoa. Eskubiko eskuan erromesaren pordoia eta ezkerrean berriz, liburu bat. Aurpegian bizar ugaria eta buruan kapela bat darama. Kape-laren aurrealdeko hegalean erromesen maskorra apaingarri.

Santioren irudi hau balio handikoa da eta arte munduan oso estimatua da, nahiz eta kronologiaren inguruan zalantzaren bat sortu.

Irudiaren jatorria oraingo ezeguna da, eta dauzkagun datuak azken urteetako ibilbidera mugatzen dira. Ezagutzen ditugun iturri zaharrenak Manuel Lekuona eta Manuel Labordek idatziak dira. 1954. urtean Munibe aldizkarian argitaratu zuten *Santiago-Mendi, de Astigarraga* artikuluan, Santiagomendi Done Jakue bidearekin lotzen dute. Ermitako aldare nagusian Santioren alabastrozko irudi hau ezagutu zuten eta deskribapen zehatz batekin amaitzen dute artikulua.

Hain zuzen, Manuel Lekuona, Oiartzungo seme eta apaiza eta Jose Maria Zunzunegi izan ziren gaurko Museoari hasiera eman ziotenak.



Santiago zalduna

Gaur egun Elizbarrutiko Museoaren arduraduna Edorta Kortadi da, Santa Maria basilikako erretoea eta Kortadik ere gaiaren inguruan artikulua pare bat idatzi ditu. 1985ean José Luis Orellarekin batera *El Camino de Santiago en Gipúzcoa de Zuberno a Zalduendo* artikulua argitaratu zuen Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Artes Plásticas y Documentales aldizkariaren 3. zenbakian. Bertan dio, ermita eta aldameneko baserria itxi zirenean, Santioren irudia leku seguru batera eraman zirela, baina ez du esaten nora, agian apaizaren etxera, eta egun jakinetan, adibidez

Santio egunean eta San Roke egunean, ermita irekitzen zenean irudia bertara eraman ohi zela.

Edorta Kortadik, berriz, 1994an Eusko Ikaskuntzako Cuadernos de Sección. Artes Plásticas y Documentales aldizkariaren 12. zenbakian argitaratutako *La iconografía medieval de Santiago en los caminos de Iparralde y Gipuzkoa* artikuluan luze aipatzen du Santio mendiko irudia eta 1991. urtetik Elizbarrutiko museoan dagoela ziurtatzen du. Aldizkari berean *Santiagoren ikonografía Gipuzkoan* izenburua duen beste artikulua bat dugu, Ana Isabel Ugalde Gorostizak idatzia. Ugalderean iritzi alabastrozko irudiaren jatorria ezeguna izateak irudiaren jatorriaren inguruko nolabaiteko zalantza sortzen dizkio eta XV. mende ondorengoan izan daitekeen susmoa azaltzen du.

Santio egunean eta San Roke egunean, ermita irekitzen zenean irudia bertara eraman ohi zela.

Modu batean edo bestean izan, Museorako bisitak merezi du. Santio ermitako alabastrozko irudiaz gain, bada Santiago apostoluaren beste irudi bat, *Santiago zalduna*, nahiz eta zaldirik gabe agertu. Egilea ez da ezagutzen eta eskultura polikromatua da, jatorriz Debako Andre Mariaren elizakoa.

Museoko artelanak kronologikoki hiru zatitan daude banatuak: Erdi Aroa, X-XV. mendeak, Aro Modernoa, XVI-XVII. eta Aro Garaikidea, XIX-XX.

Hiru aukeratzekotan Ambrosio de Bengoechearen Alkizako XVI. mendeko sagrarioa, El Grecoren San Frantziskoren zauriak, jatorriz Leintz Gatzako Dorletako Santutegikoa, eta Eduardo Chillidaren Gurutzea, Museoaren logotipoa, nabarmenduko nituzke.

Bisitarientzat ordutegi zabala dauka, goizean 10:30-13:00 eta arratsaldean 16:00-19:00, baldin eta elizkizunik ez badago. Elizkizunak daudenean ezinezkoa da museoa ikustea. Sarrera 5,00 €. ■

ARANTXA ARZAMENDI

TTIP EDO BASERRIAREN AURKAKO AZKEN ERASO BORTITZA

Gaizka Irigoien Goikoetxea

Euskal baserriaren aurkako erasorik gogorrenetariko baten aurrean gaude, baina ez bakarrik baserriaren aurkakoa. Ezagutzera ematen diren datu gutxiek agertzen dutena da ITTPa adosteko elkarrizketen eduki nagusienak agroindustriaren ingurukoak direla. Euskal Herriko nekazal eta abeltzain produktuen ekoizpen ereduak, esan bezala, azken urteetan izan duen erronkarik gogorrenaren aurrean egon daitezke. Egon daitezke diot, oraindik argitaraturik eta erabat gordean daramaten hitzarmenaren datuak filtrazio bidez bakarrik dakizkigulako.

Hitzarmena, TTIP delakoa da, Merkataritza eta Inbertsio Itun Transatlantiko, ingelesez Transatlantic Trade and Investment Partnership. Hau da, Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza hitzarmena, atlantikoaren bi aldeetako ekonomiarik handien arteko akordioa. Batzuek “Troiaiko zaldia”, besteek “Tratado Vampiro” eta beste hainbatek “Multinazionalen Konstituzioa” deitzen diote. Izenak ez du garrantzi askorik, baina bai bere baitan dauden edukiek.

Hitzarmenak, Europar Batasunaren hitzetan, EB eta EEBBen arteko erlazio komertzialak erraztuko ditu, bi aldeetako araudi eta erregulazioen arteko “harmonizazioari” esker. Arazoa, akordioaren izaera ekonomikoaz aparte, izaera politikoan datza.

Europar biltzarreko oso parlamentario gutxik dute hitzarmenaren bilakaeraren informazio zehatza eta gaur egun dakiguna filtrazio bidez jakindakoa da.

Zergatik eramaten dituzte negoziazioak ezkurtuan? Orain azalduko ditudan arrazoiengatik:

Gai abstraktu bat dirudien arren, modu eraginkor batean ondorio kezkarriak izango ditu biztanle-goarengan. Eragina, osasunean, hezkuntzan, estatu subiranotasunean, giza eskubideetan eta ingurumenean. TTIPak duen baldintzetako bat, ISDSa da (Investor State Dispute Settlement), hau da, estatu eta inbertsoreen arteko interesak epaitzeko sistema pribatua. ISDSa epaile ez diren abokatuek osatuko lukete, interes pribatu eta administrazio publikoaren arteko gatazka eta helegiteak epaitzeko, botere publikoetatik aparte interes pribatuen legoken justizia paralelo bat. Modu honetan, korporazio pribatuek, estatuei “milioi askoko indemnizazioak” eskatzeko aukera zabalduko litzateke, beraien interes ekonomikoen aurka jotzen denean.

TTIParen helburuak, nekazaritza eta abeltzaintza arloan:

Hauk dira TTIParen helburuak nekazaritza eta abeltzaintza arloan, gure baserriarengan eragin zuzena izango dutenak:

- Hazi eta elikagaien produkzio eta salmenta bioteknologia, agroelikadura eta agrokimikako mul-



tinazionalen esku uztea.

- Nekazaritza industrialaren eredia inposatzea, ustiapen txiki eta ertainak (Euskal Herriko guztiak edo gehienak) desagerrarazteko arrisku larrian jartzen dituenak.
- Herrialdeen elikadura subiranotasuna murriztea edo mugatzea. TTIParen eragina mundu guztian zehar zabalduko litzateke.
- Elikadura segurtasunerako Europar legedia eta kontsumitzaileen eskubideak deuseztatzea, multinazionalen interes ekonomikoen aurrean belaunikatuz, ingurumena eta giza osasuna mesprextatuz.

TTIParen eragin eta ondorioak

1. Europar legedia eta kontsumitzaileen eskubideak askoz ere zorrotzagoak dira EEBBetakoak baino. Legedia eta eskubideak deuseztatzeak, korporazio handiei beren aktibitate komertziala erraztuko die, "harmonizazio" eufemismoaren babesean. Esan, bezala, Europan askoz ere zorrotzagoa da eta aldaketa honek produktu agrotokoei eta transgenikoei atea parez pare zabalduko litzieke.

1.1- Transgenikoen sarrera (OMG produktuak) europar landaketetan eta elikagaien transformazio prozesuetan:

- Dagoeneko 3 arto transgeniko mota daude baimenduta Europan, animalien produkzioarako pentsuen osagarri modura erabiltzeko. Erabileraren ondorioak hauek dira:
 - Agrotokoen erabilera hedatzea, ura, aire eta luraren kutsaduraren ondorioz. Europan "Prekauzio Printzipioa" dago produktu kimikoen erabileraren aurrean, non produktu hori erabiltzeko kaltegarria ez dela demostratu arte erabiltzerik ez dagoen. Baina EEBBetan 30.000 produktu erabiltzen dira obesitate, minbizi eta diabetesarekin lotuta daudenak, inongo mugarik gabe.
 - Bioaniztasunaren galera (bertoko espezieak, espezie aniztasuna), kutsadura genetikoaren ondorioz.
 - Desertifikazioa, luraren emankortasunaren desagertzearen ondorioz, polinizazioarako, plaga kontrolerako eta luraren emankortasunerako beharrezko diren intsektuen desagertzearen ondorioz.
 - Elikadura katean agrotokoen maila altua areagotzea.

- Giza osasunean kalte zuzenak: immunodepresioa, alergiak, minbiziak, arazo genetikoak eta oraindik deskribaturik ez leudekeen arazo gehiago.

- Patenteen kontrolaren eraginez, nekazari, baserriar eta abeltzainen patenteekiko dependentzia, elikadura subiranotasuna galduaz. Patenteekiko dependentzia bioteknologikoa gauzatu-ko litzateke.

1.2- EEBBetako HCB hormonarekin (hazkuntza hormona), antibiotiko eta pentsu transgenikoekin hazitako behi buruen sarrera Europar merkatuan. Orain arte, Europar Batasunak geratu egin ditu inportazio hauek.

1.3- Klonatutako animaliak elikadura katean sartzeko mugak kentzea, oraindik deskribatu gabeko ondorioak dituen nanoteknologiaren erabilera zabaltzea, animalien ongizatearen legedia kentzea, OMG etiketak eta trazabilitatea kentzea elikagaien identifikazioan.

Esate baterako, EEBBetan elikagaien % 70 OMG produktuak dira. Europan, % txiki batetik gora, elikagaietan etiketan azaltzera behartuta daude ekoizle eta transformatzaileak.

2.- Lanpostuen galera

- TTIPak enpresa askoren deslokalizazioa eragingo du, lanpostuak galduaz.
- Eskola publikoetarako jangelatarako erosketak desagertzea.
- Ustiapen eta distribuzioarako enpresa txiki eta ertainen desagertzea, korporazio transnazional handiek zuzenean eragingo duten konpetentzia bortitzaren eraginez.

3.- Eredua agroindustrialaren inposaketa

- Nekazarien arteko hazien produkzio eta trukearen debekua. Korporazio handiek, patenteen jabeek, bakarrik izango dute hazia sortu eta saltzeko aukera, patenteen eskubideen ondorioz.
- Ekoizpen ekologiko, lokal eta bertako espezieen ustiapena desagerraraziko du.
- Europako nekazal produkzioa kontzentratzea behartuko du, konpetitibitatea bermatzeko Estatu Batuar produktuei aurre egiteko, produkzio tradizionalari kalte zuzena eginez eta nekazal esparruko biztanleria bizilekuetatik hirietara desplazatuz.

Adibide modura, EEBBetan 2.200.000 ustiapen



daude, bakoitza bataz besteko 169 Ha-ko hedadurarekin eta Europan, berriz, 13.700.000 ustiapen 10,6 Ha-ko hedadurarekin.

ITTPak ekarritako ondorioek agerian uzten dute Europako NPBaren (Nekazal Politika Bateria) galdeketa egindako kontsultetan lortutako emaitzen ereduaren aurkako eraso bortitza dela.

4.- TTIParen ondorioak

TTIPa ez da Atlantikoaren bi aldeetan dauden 2 potentzien arteko akordioa bakarrik, baita multinazionalen arteko akordioa ere. Esan bezala, beren salmenta eta inbertsiorako esparrua zabaltzeko oztopoak deuseztatzeko eta baliabide natural, ekoizpen eta zerbitzuen kudeaketetan erabateko kontrola ezartzeko prozesua da.

TTIPak, babes juridikoa izango luke edozein araudi lokal edo administrazio publiko eta organo judizial guztien gainetik, multinazionalak beraien jardura ekonomiko eta interesak inongo mugarik gabe burutu ditzaten. Ondorioz, biztanleok eguneroko bizitzako erabakietan kontrola galdu, estatuek beren subiranotasuna oparitu eta multinazionalen eskuetan geratuko ginatke.

5. Zer egin ITTParen ondorioen aurka?

Nekazal eta abeltzain arloari dagokionez, gaur egun eta tradizionalki Euskal Herrian daukagun eredu mantentzea edota sendotzea litzateke ITTParen aurka eta bultzatzen dituen monokultibo erraldoien eta bere eraginen aurka borroka egiteko baliabiderik eraginkorrena. Euskal baserri eta ustiapen anitzak (Estatu Batuetan Poliface farm delako ustiapenak, hemengo betiko baserrien eredu berbera edo antzekoak direnak), ITTPak bultzatu nahi dituen Agroindustria izugarrien aurrean, bata bestearen eredu kontrajarrienak baitira.

EEBBetan nekazaritza tradizionalak, organikoak, ekologikoak, regeneratiboak eta "poliface farmak"... etab pixkanaka-pixkanaka indarra hartzen

ari diren bitartean, beraien makro agroindustria eredu zapaltzailea esportatu nahi dute Europara.

ITTParen eraginen aurka borrokatzeko hauek dira eman ditzakegun pausuak:

- Bertako produktuak eta bertako produktoreek sortutako elikagaiak kontsumitu.
- ITTParen aurkako kanpainetan parte hartu.
- ITTParen mamia eta eraginak zeintzuk diren informatu, zabaldu eta sentsibilizazioa landu.
- Kontsumorako ohiturak birbideratu.
- Produktu freskoak eta transformatu gabekoak kontsumitu.
- Kalitateko produktuak erosi: konbentzionalak, labeldunak, ekologikoak eta konfiantzazko baina, batez ere, bertako ekoizleei erositakoak izan daitezela.
- Merkatu eta salmenta zuzeneko salerosketa bultzatu.
- Frankizia multinazionalen eraketak egin ez edo mugatu.
- Transgenikoak dituzten elikagaiak ez erosi.
- Ekoizleak eta kontsumitzaileak gerturatu, ezagutuz eta fidelizatzen dituzten ekintzak sustatu: merkatuak, ekoizleen mapak, promozio kanpainak,...

Gogoratu, TTIPa bi erraldoi ekonomikoek adostutako hitzarmena izan arren, erosleok daukagula merkatuaren boterea eta guk erabakitzen dugula gure eredu ekonomikoa, erosketa egiten dugun bakoitzean.

Gure baserri eta nekazariei produktuak erositaz eta beren lana babestuz, TTIParen aurkako erremintarik sendoena martxan jartzen dugu eta, gainera, gure seme-alabei ondorengotza osasuntsu eta libreagoa utziko diegu.

Baserritarron etorkizuna gure esku daukagu eta erosketak egiterakoan, beraien etorkizuna zein den erabakitzen dugu egunero. Zorionez, gure herria aberatsa da oraindik (nahi baino gutxiago!!) fruitu, sagardo, lore, barazki eta abeltzain produktuetan.

Aukeratu bertako produktuak eta bertako ekoizleek sortutako produktuak. Beraien etorkizuna, gu danon etorkizunaren parte garrantzitsua da. ■



HERRIA ETA KRISTAU ELKARTEA PARROKIAN

.....
Roxa Zabalegi

Mikel Goenaga erretorearen gaixoaldiak ezustean harrapatu gintuen Garizuma aldiaren hasieran eta, Astigarragako parrokian igandetako mezak emateko, Hernaniko erretorearekin kontatu genuen hasieratik. Heriotza gertatu ondoren, bailarako apaizak bildu eta Astigarragako kristau elkarteari behar zituen zerbitzuetan laguntzeko aukera egin zuten. Egin zituzten lan horiek Aste Santuan zehar eta, aurrera begira ere, horrelaxe moldatzetik genuela pentsatzen hasi ginen. Urnieta, Hernani eta Astigarragako parrokiak elkartuta zeuden aurretik Urumea Harana pastoral barrutian, baina gauzak aldatzeko premia-rik ez zen aurkitzen, gure herrian parrokia bakarra izanda eta apaiza sasoi-koa edukita.

Gutxi espero genuena gertatu ondoren, egoera berri baten aurrean, herrian antolatzen hasi gara bertan dauzkagun ahalmen eta indarrekin. Mikelen heriotzak utzitako hutsune eta erronkei erantzun beharrean aurkitu gara eta laikoekin batera, elkarlanean egoerari erantzuteko beharra ikusi dugu. Erretore izendatuak Hernaniko Jose Luis Aperribai eta Urnietako Xabier Murua parrokoak izan dira. Biak,

hiru herrietan dauden bost parroketako erretore izango dira aurrerantzean. Orain zazpi urte hasitako pastoral barrutiaren bideari berriro ere eusteko momentua da, egitasmoa berreskuratzeko egokiera izan dezakegu.

Gaur egungo egoeran, apaiz gutxiago edukitzeak erronka berri bat sortzen digu. Parrokian ez dugu apaizaren mende egon beharrik, elkar-
sena bultzatzeko eta kris-
tau bezala elkar-
te hau in-
dardu eta bertan lan egi-
teko. Hemendik aurrera,
laikoek lan eta ardura
gehiago hartu beharko
ditugu gure gain. Denok
parte hartzea daukagu,
bai emakume, bai gizase-
me, eta denon artean era-
man aurrera parrokiako
lanak. Gaur egun, apaizik
gabeko ospakizuna egi-
ten da jai bezperetan ka-
peran, hitzaren liturgia
ospatzen da. Hildakoei
lur ematerakoan, azken
agurra eta otoitza ere lai-
koek egiten dute. Bakoi-
tzak ahal duena eman-
da eta denon artean lan
eginda, geurea sentituko
dugu elkar-
te eta igande-
tako meza bakar batean
elkartuz, Astigarragako
kristau elkar-
te askoz sendotuago aurkituko dugu
seguruenik.



Jose Luis Aperribai eta Xabier Murua,
Astigarraga, Hernani eta Urnietako parrokoak

Tras la pérdida del párroco Mikel Goenaga, la comunidad cristiana de Astigarraga ha empezado a caminar aunando las distintas fuerzas existentes dentro del consejo parroquial. Han sido nombrados párrocos Jose Luis Aperribai de Hernani y Xabier Murua de Urniet, formando una unidad pastoral entre los tres pueblos.

Los laicos, hombres y mujeres del entorno de la parroquia, tenemos un reto en adelante para vivir nuestra espiritualidad con un sentido comunitario y aportando cada cual en su ámbito, dentro de sus posibilidades, muy seguro que veremos reforzada nuestra comunidad parroquial.

ASTIGARRAGAKO PARROKIA KONTSEILUA

Handiak egin gara zuei esker,

25 urte hauetan ondo ase gaitzueneari esker!

“Herrian lan egiten duzunean herriak herrian lan egin duzula ikusten du”

XAGU-XAR aisialdi taldea

Eserita nago, lasai, goizeko bigarren kafeaz gozatzen egunaren lehen eguzki izpiekin batera. Polita da udako goizak horrela hastea, isiltasunean. Begiak itxi eta arnasa hartuz, beste inolako kezkarik gabe. Egun beroa datorkigu gaurkoa baina arnasa oraindik garbia da, freskoa. Trantzetik atera nau urruneko hots batek. Ireki ditut begiak baina ez dut inor ikusten. Soinuak entzuten ditut urrunean. Ez dut oso ongi entzuten baina norbait badator aldapan behera, kantuan, oihuka. Akabo lasaitasuna! Gerturatzten ari dira, garbiago entzuten ditut ahotsak: *Nire atzetik! Ilaran! Sardina bat! Ipini alpargata!* Oihu eta ahotsak bata bestearekin nahasten dira. Irriak eta algarak. Kasketa bat edo beste ere bai. Eta horratx tropela! *Iufi eta aufa, autobusa dator!* Txankletak eta bisera jantzita, binaka eskutik helduta, begiraleen begiradapean. Egun on esan didate, noski, ederki nagoela! Nik animoak eta egun ona izateko, meritu galanta badutela! Barre egin dute, ondoko haurra eskutik heldu eta hortxe jarraitu dute bidea, kontu kontari. Uztaila da, lagunak. Uztaila da eta udalekuak hasi dira Astigarragan.

“Zerbait egin nahi genuen haurrentzat. Eta zerbait egin genuen haurrentzat”

Izaten dira, bada, inoiz geldi egon ezin duten lagun taldeak, banku batean esertzearekin konformatzen ez direnak. Gu haur ginela Astigarraga herri txikia zen eta kalean denbora asko pasatzen genuen jolasean, korrika, borroka txikietan, hitz eta pitz... hori zen gure aisialdi eremua. Ekintza antolaturik gabe jolasten genuen normalean, gure artean. Astigar taldeak tarteka irteerak antolatzen zituen: zinea, eskulanak... baina haur izateari utzi genionerako Astigar Dantza Talde bihurtu zen eta haurrak eskaintzarik gabe gelditu ziren. 17-18 urte izango genituen garai hartan, 1991. urtean. Koadrilako gehienak udalekuetan ibiltzen ginen udarran *xoxak* ateratzeko eta nola utziko genuen, bada, gure herria haurrentzako ezer gabe? Larunbatetan

ekintzak antolatzea pentsatu genuen. Lehenengoa ondo gogoratzen dut, Santiagomendira irteera. Urte horretan bertan antolatu genuen lehenengoz gabonetako Ludoteka zuetako batzuek oraindik ere buruan izango duzuen Txomin San Sebastian Ikastetxean! Eta hortxe piztu zen suziria. Ordutik ikusi ahal izan dut aurrera joan dela gure taldea, gure fruitua, gure haurrak.

“Xagu-Xarrek bizitzaren zikloa ixten du: haurra dena gerora begirale egiten da; eta begiralea dena Xagu-Xarreko haurren guraso”

Bizitzaren zikloan, bizitzaren ziklo amaigabean zioen Hakuna Matata hain ezagun bihurtu zuen filmak. Begirale izan direnak lehenengo haur izan dira; eta haur eta begirale izandako asko orain ere guraso badira. Hori da Xagu-Xarren altxorra, dudarik gabe. Horrek bereizten du gainontzeko udalekuetatik. Horrek egiten ditu begiraleak lanaren parte. Bizitzaren zikloan parte hartu dutenen ahotik hitz hauekin ulertzen du Astigarragak Xagu-Xar: Esperientzia ederra. Ongi pasatuz hezte. Hamaiketakoak. Udara. Laguntasuna. Laguntza. Aberasgarria. Jolasak. Hondartza. Naturaltasuna. Barre. Oihu. Nekea. Zikindu. Busti. Izerditu. Hondarra. Saltsa. Frontoiak. Txokolatea. Txupinazo txikia. Ume arteko kontua. Txokoa. Euskara. Gertukoa. Mugimendua. Izaskun autobusak. Gaztelu. Zinta jolasa. Oka. Ginkana guarra. Aia-ko igerilekua. Getariako hondartza. Hobetzen. Parte hartzea. Filosofia. Ez da dirua bakarrik. Lana. Errespetua. Sekta. Fundamentua. Erreferentzia. Zerbitzua. Taldea. Parranderoa. Saltseroa. Aktiboa. Dibertigarria... Generazio desberdinak izan dira taldearen bihotza eta herrian aisialdi taldea baino gehiago da zuen, gure Xagu-Xar.

“Ez zarete gure haurren begiraleak. Gure haurren anai-arreba zaharrak zarete”

Gure umeek bilatu egiten zaituztete kalean, festetan. Lotsatzen dira zuek ikustean eta maitemindu



zuek ezagutzean. Gustura egoten diren seinale. Horixe da nik nahi dudana. Beraiek zuek bezalakoak izan nahi dute eta zuek beraien eredu zarete. Niretzat hori da Xagu-Xar, haurren eta begiraleen arteko konplizitatea.

“Garde. Kanpaldia. Kanpamenduko azken egunetan udako gauetan erre kara etortzen ziren zapo eta igelak bildu eta kanpin dendetan sartzen genizkien gazteei. Batzuk lo, besteak oihuka!”

Esperientzia onenak, dudarik gabe, Erronkari bailarakoak izan ziren, Garde herrikoak. Haur izan ondoren begirale izan nintzen ni. Bertakoekin oso harreman ona genuen bai gazteek eta baita begiraleek ere. Camille hartza gora eta behera izutu-ta, Garden mendian zegoen Ermitara lo egitera joan eta gutxi batzuk egiten zuten kanpoan lo, beldurtuta. Ipuinak zirela, kantua zela. Eta inoiz inon berriro ikusi ez dudana zerua. Ekaitzak ere izaten genituen tarteka, tximista eta trumoi, zein baino zein gertuago. Gaueko zaparradaren ondoren goizean eguzkia atera eta berriro jartzen genuen taldea martxan. Eta ginkana guarra, eta Burgiko erreka eta saltoak, sukaldea, almazena, dutxatzat igerilekua ulertzea, uretako olinpiadak, argazki jolasa, Erronkariko ogia, raftinga, Gállego ibaia... Eta parrillada. Parrillada eder hori. Hori da etorkizunean gelditzen dena. Zapore gozoa, inoiz ahazten ez dena eta Xagu-Xarri esker barruan dararamadana.



“Gure herriko txikien eta gaztetxoek heziketan izugarrizko lana egiten ari zarete, herri bizitzan denok pertsona ireki, alai eta partaide senti gaitezten. Eutsi ekintza emankor horri. Zorionak!”

Ez gaude ohituta gure burua zoriontzen baina batzuetan bizkarreko batzuk eman behar izaten dira, lanak bere fruituak ematen dituenen! Urtero udalekuetan zehar eta udalekuen ondoren esker oneko hitzak entzuten ditugu, maitatuak sentitzen gara. Esker ona adierazten digute askok eta askok, bai haur eta bai guraso. Eta hori latza da. Xagu-Xar Taldea ez da begirale izatea bakarrik, auzolana da, herrilana. Konpromisoa. Eta ongi pasatzen dugu, gaitz nontzian ez genuke jarraituko! Handiak egin gara zuei esker, edo zuek parte zinetela. Ez dakit, bakoitzak uler beza hemengo lerro bakoitza bizipenen arabera, identifikatua sentitzen denaren arabera, 25 urte ez dira eta alferrik pasa! Guk lanean jarraituko dugu Xagu-Xar ez dadin beste Aisialdi taldeak bezalakoak izan. Xagu-Xar beste zerbait izan dadin. Herriarentzat haur, gazte, begirale eta guraso izan dadin. ■

NI EUSKALDUNA, NI ASTIARTARRA

ASTIARTARRA NAIZ ETA...

maite dut Herria.

Zazpi urte pasiak,

hemen bizi naizela,

badut nik hoi esatia?

Askotan aitzen det

ni ez naizela astiartarra,

Cadizen jaioa, Donostian, Urnietan,

Antiguon... bizia eta euskaldun berria,

nola da posible ni Astigarragako izatia ?

Burutazio hauek, eta beste batzuk, izaten ditut askotan. Zeinek ematen dit niri nonbaiteko izateko eskubidea? Zeinek agintzen du nire identitatearen sentimenduan?

Udalak, erroldak eta ordaintzen ditudan zergek Astigarragako naizela esaten dute, hori argi da. Baina, non kokatzen da sentimendua? Zeinek du eskubidea beste bati esateko ez dela herrikoa? Ala, zeinek dauka esaterik astiartarra dela?

Desde que nace, el ser humano debe comenzar su vida identificándose a si mismo como un ser separado y diferente a su madre e integrado en distintos grupos y situaciones. Las personas crecemos en una familia que habita en un entorno. Esos entornos pueden variar haciendo que las personas nos enriquezcamos. La identidad de las personas, como la de los Pueblos, está en continua construcción.

Tanto para definir una ciudad como un pueblo, un estado, una nación, una aldea, una persona, un



ordenador, un alimento, un artículo de lujo, una necesidad básica, un derecho, una obligación.. es necesario tener clara la identidad del fenómeno al que nos enfrentamos: Identificar es el proceso más delicado y esencial al que se enfrentan los seres humanos. Identificar exige la capacidad de separar e integrar a través de diferentes magnitudes físicas, vivenciales, convivenciales y espacio-tiempos un mismo fenómeno.

El modo en cómo se identifiquen las personas y los espacios dará lugar a derechos y obligaciones que condicionarán sus vidas. Astigarraga fue barrio de Donostia hace unos años, ahora es un pueblo independiente administrativamente.

¿Qué empujó a los habitantes de Astigarraga a querer tener su identidad administrativa separada de la de Donostia? Zerk bultzatzen gaitu Astigarraga etortzera? ¿Qué hace que no queramos abandonar nuestra casa en Astigarraga? Gure Herriko hazkundera, nolakoia izatea gustatuko litzaiguke? ¿Cuáles son nuestras referencias a la hora de ubicar nuestro pueblo? Nortzuk nahi ditugu gure bizikide izatea? Non dira gure nagusiak? ¿Dónde quedamos para darnos cita? ¿Dónde estudian nuestros niños

y niñas y dónde se dan ellos cita? ¿Cómo queremos que sea nuestro entorno y nuestro paisaje? Non bizi eta non egiten dute lan gure gazteek? Zein da gure herriaren usaina? ¿Cuáles son sus sonidos?... y sobre todo ¿qué nos despierta casi todos los domingos por la mañana?

Lo cierto es que en este momento, y desde hace años, cuando me preguntan que de dónde soy, tomo aire, me sonrío y digo: “ de Astigarraga”. Recuerdo que en un congreso de estos en los que solo se habla inglés y va gente de todo el mundo se me presentó uno de los editores jefe de “Elsevier” (una editorial muy importante a nivel científico) y me dijo con voz grave y pausada: “I’m Lyndon, from Oxford” a lo que le contesté muy educadamente, “I’m Urkiri, from Astigarraga”. En ese momento vi cómo mis compañeros casi explotaron de la risa y cuando se fue me dijeron: “Ese hombre seguramente no sabe ni dónde está Bilbao” a lo que les contesté que si nosotros conocemos su pueblo, de unos 150.000 habitantes, ¿por qué no iba él a conocer el mío? ■

Urkiri Salaberria





Txurriategi zutik baina hutsik, 1991n. J. Tellabide

TXURRIATEGI_{RI} AZKEN AGURRA

Urumearen ertzean, Astigarragako mugalerrotik metro gutxira egonagatik, Donostiako Martutene auzokoa da Txurriategi baserria. Urumeako erribera emankorren erdian kokatua, garai bateko etxe eder eta jarduera handikoa zena, kanpoko lau paretak ozta-ozta zutik dituen hondakin multzoa besterik ez da gaur egun. XVII. mendean jada dokumentatua dagoen etxeak, XXI.aren hasieran eman du azken hatsa. Hori dela eta, jarraian lerro batzuk eskainiko dizkiogu Txurriategiri, agur moduan; era berean baserri horretako alaba den Juanita Txintxurretaren eskutik jasotako errioarekin lotutako hainbat kontu azalduko ditugu.

Txurriategi egun Martutene auzokoa bada ere, Juanita haurra zenean Amara zen hura, Beheko Amara, edo Bajo Amara Juanitak dioen moduan. Amona zuen bertakoa, Modesta Arregi, eta bertara ezkondu zen aitona, Sebastian Txintxurreta, jatorriz Andoaingo Arrantzu baserrikoa. Bertako semea zen aita; ama, berriz, Petritegiko alaba. 1932an jaio zen Juanita, eta bi senide izan zituen, euretako bat, anaiordekoa, Fraisorotik ekarria. Jaiotzez Amarakoa izanagatik

eliza kontuetan beti izan dute Txurriategikoek Astigarragara joera. Hala, Astigarragan bataiatu eta ezkondu zen, eta gaur egun, bizi ere bertan bizi da.

Zenbat bider igaroko ginen Portutxoko biribilgunetik, erriberen gain, Urumeako autobidera daraman bidezubitik, hegan, behean dugunean erreparatzeko astirik gabe? Han darraite, sasi artean ezkutaturik Txurriategiko aurriak.

Erabat desitxuratua badago ere, argazkian ikus daitekeen moduan oinplano karrratua zuen, altueran bi solairu, teilatupe handiarekin, eta bi uretako zurezko estalkia gainean. Harri-hormak zituen buelta osoan, aurrealdeko goiko zatian izan ezik, zutikako bilbadura batek egiten baitzuen hor itxiera.

Harrizko ateburu bateko inskripzioak dioen moduan, 1845ean izan zen berreraikia, ziurrenik lehen gerrate karlistan erre egin baitzuten. Hala ere, askoz lehenagokoa da Txurriategi. Ricardo Izagirre historialariak jaso zuenez, 1611 urteko dokumentu batean ageri da, baimen municipalak eman zitzaizela Antonio de Oquendorri (orduan Txurriategiko jabea) eta Sebastian de Zapiraini, Churriategui eta Zapirain baserrien parean, izokinak arrantzatu ahal izateko nasa bat jartzeko.

Okendotarrak baziren aspaldi hartan jabeak, geroago Zizurkilgo San Milian familia boteretsuarekin ezkontza bidez elkartu, eta hala, 1811ko Errenta dokumentuetan San Miliango markesa ageri da Txurriategiko jabe. Donostian, besteak beste, 15 kale-etxe eta 24 baserri zituzten, horien artean Txurriategi. Era berean, zerga moduan finka guztiengatik orotara urte horretan 23.652 erreale ordaindu bazituen, 1.027 erreale zegoen Txurriategiri. Datu horrekin, etxe aberatsa zela adierazi nahi dugu, Donostiako baserri arrunt batek 400 erreale inguru ordaintzen baitzituen lurrengatik.

1845ean eraikina berreraiki zutenetik, bi maizter familia hartu ditu Txurriategik, zalan-tzarik gabe errenta bikoitza kobratu ahal izateko. Horietako bat zen Juanitaren Txintxurreta Ugalde familia. 1980ko hamarkadan ateraratako lege batek, 100 urte baino gehiago maiztertzean zeraman familiari, etxea prezio onean erosteko aukera eskaintzen zion. Eginahalak eginda ere, azkenean ez ziren inolako akordiotara iritsi jabeekin, eta gaur oraindik, etxea lur jota dagoenean ere jarraitzen dute urtero errenta ordaintzen. Jabe zuzenik ez dute sekula ezagutu Txintxurretatarrek, abokatu edota finka administratzaileekin izan dute beti harremana.

Pasa den mendearen hondarrean, urak zikinak, txanelak galduak eta baserriaren urte oparoak igarota, eraikinaren egoera gero eta kazkarra goak bultzatuta, inguruko Antxume baserrira pasa ziren bizitzera, Andoaingo aitonak hona etortzean hura erostea lortu baitzuen. Ordurako etxekoneko familia irtenda zegoen Txurriategitik, eta beraz, hutsik geratu zen, betiko; eta kasurik egin gabe, emeki-emeki, denbora igaro ahala erortzen joan da, gaurdaino. Halere, inguruko baratze oparoak lantzen jarraitu zituzten, Txintxurretatarrek lehenik, eta gertuko Agirretxe familikoek ondoren.

Urumeako autobide berriak bete-betean harrapatu zuen Antxume, eta 2007an hura eraitsi zutenerako, Astigarragara lekualdatu zen Juanita familiarekin, eta bertan jarraitzen du bizitzen egun.



Txurriategi 1993an jada hutsik zegoen, eta ateburu itzela zuen. J. Tellabide



Txurriategi 2005ean. A. Agirresarobe

Juanita eta Urumearen artekoa

Urumeak Martuteneko erriberetan egiten duen mako handian (Txurriategiko buelta) dago Juanitaren jaiotetxea, errio ertzean; ez da beraz harritzekoa erriorekin harreman berezia izatea.

Noiznahi pasa behar izaten zuten errioa, zela egunero esnea partitzera eta Bretxara tratua-rekin joateko, zela jai egunetan mezetara joateko. Bertakoez gain, pasoan ziren beste askok ere erabiltzen zuten Txurriategiko txanela. Gertuen zuten zubitik igarotzea itzuli handia ematea zenez, txanela-pasabideak zeuden, bana errio ertzean zeuden hiru baserrien ondoan, Goiatzen, Anbotegin eta Txurriategin. Hiruetatik azken hori omen zen erabiliena, eta oihuka aritzeaz aspertuta nonbait, azkenean tinbre elektrikoa jarri zuten. Hala, Txurriategin tinbreak jotzean, bertakoek bazekiten beste aldean bazela norbait txanela eske errioa zeharkatzeko. Bederatzi urte zituenean hasi zen Juanita txanela gobernatzeko, eta geroztik makina bat bider pasa izan ditu erriorearen alde batetik bestera etxeokoa nahiz kanpokoak, baita uretara erori ere, igeri jakin gabe. Gizonek, anaiak eta aitak, denek zekiten primeran igeri egiten, baina ez emakumeek. Bainujantzia eduki ere ez zuen egin.

Baina hori bakarrik ez, errioko ura eltzerako ere erabiltzen zuten eta norbere garbiketarako ere bai. Juanitaren amak gainera gobara egiten

zuen errio ertzean. Diru pixka bat ateratzeko Donostiatik bueltan, tranbian eta buru gainean ondoren, maindire, oihal eta zapi pila ekartzen zituen. Errio ertzean barreño handi batean xaboi-uretan eduki eta gero, hankak uretan zituela, lau hankako mahai arin batean arropa igurzten zuten ondoren, gogoz arraskatu, zikin orbanak kendu nahi bazituen. Gero aitonak prestatutako baldo eta alanbreetan taxuz zabalduta jarri, eta lehortzen ziren, batere plantxatu gabe. Egoki tolestu, berriz ere fardelak egin eta Donostiara.

Ur ertzean egonik, uholde edo ur handiekin izandako komeriak ere bizi izan ditu Juanitak. Txurriategi harrapatzerako, Martutene guztia urak hartua izaten zuten, errio ondoan bai, baina baserria zertxobait altuago baitzegoen. Uraren maila igotzean astiro-astiro urak inguruko lursailak hartzen zituen, inguratuta geratu arte; baratzea, soroa, fruta-arbolak...dena urpean buelta guztian. Azkenik, etxe barrura sartu eta beheko solairua ere hartzen zien urak. Orduan ez zuten inora alde egiterik eta ganbara handia zutenez hara eramaten zuten ganadua, eskaileretan gora. Diki-daka behiek nola igotzen zituzten eskailerak aipatu du, baina jaisten gaizki moldatzen zirela oso, eta simaurraz baliatzen zirela jaitsiera errazteko. ■

Asier Agirresarobe

Josu Tellabide



Joan zen ekainaren 12an aurkezpen ekitaldia egin zuen GURE ESKU DAGO ekimenak Astigarragan. Ekitaldi horretan eman zen datozen hilabeteetan ekin nahi zaion bidearen berri. Izan ere, Astigarragak beste hainbat udalerritan hasi duten bideari ekin nahi dio, Hernanirekin batera, 2017ko udaberrian galdeketa egin ahal izateko.

Maiatzaren 7an Donostiako Zurriolan dozenaka lagun bildu ziren herri galdeketa ekimena aurkezteko. Erabakitzen hasi ziren. Bertan garbi geratu zen erabakiaren bidea herritarrok egingo dugula.

Ekainaren 5ean, Etxarri Aranatz eta Arrankudiaga-Zolloren bidetik, galdeketa egin zen 34 udalerritan: Goierri (23 herri), Debagoienan (8 herri), Aramaion, Azpeitian eta Ispasterren. Emaitzak ezin hobek izan ziren. Euskal herritarren burujabetza hasi dira gauzatzen. Gure etorkizun politiko eta soziala libreki erabakitzeko gaitasuna.

Udazkenean horixe bera egingo dute Diman eta Bakaikun. Eta 2017ko udaberrian, galdeketa

egingo baitira besteak beste, Oarsoaldea, Aulesti, Barrrika, Bermeo, Busturia, Elorrio, Sopela, Uribe Kosta eta Usurbilen. Astigarragak talde horrekin egingo du bat, Urumea bailaran (Goizueta, Hernani eta Astigarragan) egin nahi dugun galdeketaekin. Horretarako BAGAGILTZA izeneko talde ekimena sortu berri dute Hernanin, eta Astigarragak talde horretan hartuko du parte.

GURE ESKU DAGO edo BAGAGILTZA ekimenenarekin bat egiteko modu asko izango dira aurrerantzean, eta horietako bat GURE ESKUREN EDO BAGAGILTZAREN LAGUN egitea izango da. Izan ere, horretarako aukera eskainiko zaie herriko merkatari guztiei.

Santio jaietako giroan murgilduta GURE ESKU DAGO ekimenak herri bazkaria antolatu du, eta aurrera begira, besteak beste, sinadura bilketa izango dugu, gure indar, ilusio, nahi eta borondatea adierazteko. GURE ESKU DAGO ekimenaren helburuarekin bat egiten baduzu, alegia, Euskal Herrian, herritarrok, gure estatus politikoa erabaki behar genukeela uste baduzu, zain izango gaituzu. ■

“EHUN ETA EHUN BERREHUN;

GORA ASTIGARRAGA!!”

Astigarragako Herri Eskolako irakasleek prestatu berri duten mahai-jolasa



LH3D mailako ikasleak jolasean.

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan, 8-9 urteko eskola umeek, eskola kokatua da goen herria jorratu behar izaten dute, gu-reek Astigarraga, jakina. Mahai-jolas honek unitate didaktiko horren amaierarako joko motibagarri eta dibertigarria izan nahi du.

Aurrenik eta behin azpimarratu nahi dugu jolasak ez duela adinik eta Astigarraga sakonago eza-gutu nahi duen edonorentzat, ume nahiz helduentzat, baliabide oso aberatsa eta dibertigarria dela.

Astigarraga, gure herriaren izena izateaz gain, gure nortasun eta ohituren kokalekua ere bada. Urteetan zehar bertan bizi izan diren pertsonak, baserriek, lantegiak, dendek... zehaztu dute gure arteko harreman mota eta herriaren izaera. “Izan direlako, gara...” dio esaerak, eta nolakoak izan diren jakitea da mahai-jolasaren xedeetako bat.

Eta horretarako, zer hobe lagunekin ongi pasatuz ikastea baino? Gure herriko iragana eta oraina ikastea

baino? Mahai-jolasak, gizakiongan jolasak dituen onurak bultzatu nahi ditu eta gizarte honetan gero eta preziatuagoak diren alderdiak azpimarratu: lagunarteari denbora-tarte bat eskaini, arauak ezarri, eztabaidatu, barre egin... Horiexek dira mahai-jolas honen xedeak.

“Garelako, izango dira” jarraitzen du esaerak; etorkizuneko Astigarragak, gaur egun dituen ezaugarriak mantendu ditzan, heziketak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Eta jolas honek horretan ere ekarpen txiki bat egin nahi du. Gure arbasoek egindako ahaleginak ez direla alferrikoak izan egiazta dezagun.

Mahai-jolasaren ezaugarriak

2 jokalaria nahikoak izango dira jokaldi bat burutzeko baina taldeka jokatu gero, dibertigarriagoa izateaz gain, taldekideen laguntza izango dugu.

100 postuz osatutako ohiko mahai-taula baten gainean, dado pare bat gidari, aukeratutako per-



tsonaia amaierara eramatea du helburu, dadoek agindutako postuak mugitu ondoren, gelditu garen postuko kolorearen araberako txartelaren erantzuna asmatuz. 3 froga txartel topatu ahalko ditugu:

Galdera txartelak: Herriko egungo egoerari buruzko galderak: kaleen izenak, dendak, sagardote-giak..., baita gure herriko historiari buruzkoak ere.

Argazki txartelak: Aspaldikoak eta gaur egungo 60 argazki inguru. Argazkia ikusita, bertan agertzen den galderari erantzun behar zaio.

Froga txartelak: Txartelean jartzen duen froga bete egin beharko du jokalaria (edo taldeak), eta gainontzekoek froga ontzat eman beharko dute aurrera jarraitu nahi izanez gero.

Pertsonaiak:

Jolaserako aukeratu ditugun pertsonaiak herriko pertsonaia esanguratsuak dira, honako hauek, hain zuzen ere: Upelio, Nabarra Oiñatz, Txomin San Sebastian eta Kontxa Etxeberria.

Eta jolas honekin zein asmo?

Aukera ezberdinak aztertzen ari gara. Ale bat presatua dugu eskolan ikasleekin nahi denean erabiltzeko baina eskolatik kanpo zabaltzea ere interesgarria iruditzen zaigu.

Mahai jolasa osorik, PDF dokumentu batean jasota dago eta edozein inprimagailuarekin presta daiteke ale bat. (Interesa duen oro eskolarekin harremanetan jarri eta eskatzea dauka.)

Amaitzeko, udalera ere jo dugu jokoa modu txukunago batean argitaratu eta kaleratzeko egon daitezkeen aukerak aztertzeko eta herritar ororentzat eskuragai egotea espero dugu, eskolatik kanpo ere Astigarraga sakonago ezagutu eta ondo pasatzeko aukera paregabea iruditzen zaigulako. ■



HERRI BIZITZAZ 2016

JON GARMENDIAREN OROIMENEZ



Gure aldizkariko idazlanetan laguntzailea izan zen Jon Garmendia 2014ko irailaren 28an hil zen. Hori dela eta, aurtengo aldizkarian bere oroimenean zenbait aipamen berezi egin nahi izan dugu.

Izan ere, pertsona umil eta emankorra izateaz gain, euskaltzalea eta euskal kulturaren aldeko defendatzaile sutsua izan zen.

Gure artean izandako harremanak aldizkariko lehen urteetakoak izan ziren, berak aldizkaria ordenagailuz maketatzen hasteko jarraibideak eta urratsak eman baitzizkigun.

Sagardoa eta sagardogintza asko mimitzen zituen eta bere artikulua askotan sagardoaren sustapen soziokulturalaren inguruan eman beharreko ildo esanguratsuak jorratu zituen.

Jonekin izan dugun ahaztu ezineko ibilbide horretan bat egin dugulako, Agur eta ohore, JON.

SAGARDO DASTAKETA SANTA ANA EGUNEZ 40 URTE

Santa Ana egunarekin egiten den sagardo egunak ere 40 urte bete zituen 2015eko jaietan.

1976 urtean gazte koadrila bat elkartu eta Astigar elkarteak sortzearekin batera, festen aldaketa etorri zen eta bertan sagardoa dastatzeko egun berezi honi eman zitzaion hasiera.

Herritarrek sagardoaren kultura bizitzen dute eta ezagutzera emateko aukera ezin hobea bilakatzen da.



ASTIGAR DANTZA TALDEAREN 40. URTEURRENA



2015 urteko Santio egunean ospatu zen Astigar dantza taldearen 40. urtemuga. Lehenengo urtean parte hartutako dantzariak deituak izan ziren argazki bat ateratzeko eta taldearen hasieran, lehen unetan aritu ziren dantza maisuei eskaini zitzaizkien omenaldi txiki bat, urteroko emanaldiaren barruan. Argazkian lehenengo irakasleak: Begoña Mugika, Martin Ormazabal, Mantto Olarra eta Joxe Eduardo Alberro. (Pastain argazkia)

A3 AUTOBUSA ORAIN!!!

Otsailaren hasieran izan zen, bat-batean eta inongo azalpenik gabe A3a astigartarroi kendu zigitenean. Taberna, denda eta kalean jendeak marmar egiten zuen eta marmarra bideratzeko asmoarekin biltzen hasi ginen gutxi batzuk A3 zerbitzu berezia berreskuratzeko aldera. Zerbitzu berezia deritzogu, behar gehien zutenek erabiltzen zutelako, gaixoek, ikasleek, langileek eta Antiguako auzora ogasunera, trafikora... joan behar zutenek.

Taldea segituan gorpuztu zen, bai eta ekimenak martxan jarri ere, sinadura bilketa (1.700 sinaduratik gora) eta mozio baten aurkezpena Udaletxean. Helburua, ahalik eta jende gehienak bat egitea zen, eta nola ez, Herritarrak eta Udalak bat egitea eta elkarlanean aritzea. Azken hau zaila izan bazen ere, lortu genuen.



Hasiera batean Mozioa gai zerrendan sartu ez bazuten ere, azkenean sartu eta onartua geratu zen. Mozioak Diputazioan bilera eskara luzatzea eta bertara Herri bezala aurkeztea ahalbidetzen zigun, bai eta hala egin ere, baina emaitza kaskarra Diputazioko ordezkariaren Nagusikeria medio. Hortik aurrera, Udala eta Lan Taldearen artean hartu-eman hoztu eta mesfidati bihurtu ziren, berriro ere urak berera eman genituen arte.

Azken konpromisoa udalaren aldetik A3 Orain!!! Lan Taldeak eskatuta, autobus ezberdinen datu diskriminatuak, ez orokorrak baizik eta zehatzak, mahaigaineratzea, elkarlanean Diputazioari proposamen bat

egiteko asmoarekin.

MIKEL APAIZARI OMENALDIA

Herritarrek eta bere lagunek antolatutako omenaldia egin zaio Mikel Goenaga apaizari. Bere heriotza gertatu ondoren, egun berezi bat ospatu nahi izan da, talde askok parte hartuz eta bere familiarekin bat eginik. Oroigarriak ipini dira bera gogoratuz eta bazkari batean elkartu, bere oroimena partekatuz.



Astigarragako gurasos

*Astigarragako GuraSOseko taldekideok oso garrantzitsutzat eta positibotzat jo dugu ekainaren 19-ko mobilizazioa, alde batetik, jendeak oso erantzun ona eman zuelako erraustegiaren aurkako kez-
kak azalduz, eta bestetik, aukera izan zelako herriari eta komunikabide guztiei mezua adierazteko
eta zabaltzeko. Izan ere, inposaketa arriskutsua eta antidemokratikoa iruditzen zaigu, ez baitago
intentziorik herriari kontsulta egiteko, nahiz eta osasunarekin zerikusia duen gai garrantzitsu eta
larria izan gainean nahiz 15 km baino gutxiagoko distantziara dauden herri batzuetarako.*

Gure seme-alaben osasuna arriskuan ikusten du-
gunean, gurasoak eta familia guztia mobilizatzen
gara, zalantzarik gabe, gaia serioa delako, gure
etxeen eta bizitzaren gainean daukagulako arriskua
-erraustegia-.

Abestiak esaten duenaren bidetik, "Nire aitaren
etxea defendituko dut", eta gainera, "Gure se-
me-alabaren osasuna eta etorkizuna defendituko
dugu".



"Nire aitaren etxea defenditu-
ko dut", eta gainera, "Gure seme-
alabaren osasuna eta etorkizuna
defendituko dugu".

**ERRAUSTEGIAREN AURKAKO TALDEAN
ere lanean aritu gara Astigarragan M29ko
giza katean parte hartuz.** Zailtasunak zailtasun
eta akatsak akats, oso balantze positiboa egiten dugu.
Jendeak primeran erantzun zuen eta, gainera, itxura
guztien arabera, poz-pozik geratu zen. Psikologiko-
ki ere kolpe garrantzitsua izan dela nabarmendu
da. Izan ere, orain dela gutxi borroka hau galdutzat
zuen sektore bat irabaz daitekeela sinesten hasi da.
Erraustegizaleei, berriz, oso deseroso ikusten zaie.
Mugimendua baztertzeagatik urduritasuna islatzen
duten adierazpenak egitera pasatu dira.

225.000 esku orri Gipuzkoa osoan pos-
tontzietan banatzea ere oso garrantzitsu eta
positibotzat jotzen dugu. Talde gisa oso lan



koordinatua egin zen, 225.000 etxetara Er-
raustegiaren errealitate krudela zabaltzea ez
zen lan makala izan. ■



Astigarragako Udala

Tximela SA



www.tximela.com

kutxabank
hemen
eta orain



2015



ASTIGAR

Dantza Taldearen

40.

urteurrena



Carlos Pascual, Guti, Koldo Aduriz, Joxe Mari Alberro, Kottan Artola, Felix Zapiain, Iñaki Ubarretxena, Juanjo Olló, Joxean Zubiarraín,

Alex Olló, Joxan Alberdi, Bixente Loidi, Antton Arka, Juanma Laburu, Martin Ormazabal, Joxe Eduardo Alberro,

Juantxo Arzallus, Dabid Goñi, Joakini Lujanbio, Josebe Lizeaga, Mantto Olarra, Mikel Serra, Txuman Arrizabalaga

Miel Joxe Astarbe, Eli Laburu, Ines Pujol, Mariabitoria Senperena, Josune Otxotorena, Maribel Urdangarin, Arantxa Goñi, Marixol Arzallus, Eduardo Gonzalez,

Inma Olló, Esther Zubiarraín, Marijoxe Beldarrain, Ana Mateos, Roxa Zabalegi, Begoña Mugika, Mariaxun Jauregi, Mariatje Zabalegi

1976ko uztailaren 25a

LEHENENGO SOKADANTZA